

Aurrekueta soinu zahar txapelketa etzi Altsasun



Kultura >> 13

Bihar, 7:00etan, Hiru Mendizerrak mendi ibilaldia abiatuko da Altsasutik. Mendizaleek oraindik izena eman dezakete



Kirolak >> 11

3D animazio eskola tailerra egingen da

Animazioko eta multimedia produktu interaktiboak sortzeko eskola tailerrak 18 ikasle trebatuko ditu

Sakanako Mankomunitateak eskatutako birziklatze eskola tailerra laguntzarik gabe utzi du Gobernuak >> 5

Igandean bigarren eskuko azoka Irurtzunen

Senegalen osasun kontsultategi bat egi-tera bideratuko dira irabaziak >> 7



Altsasuko Antzerki Tailerra eszenara >> 15



Talde-ekintzailetzari buruzko jardunaldietan parte hartu zuten kooperatibistak, antolatzaileekin batera.

Kooperatibak talde ekintzailetzarako eredu

Erabakitze eskubidearen alde agertu da Etxarriko Udala >> 6



Emakumeak: gonbitetik protagonista izatera >> 3



Los del Rayo kantu eta disko berriarekin bueltan dira >> 13

**ZURE NEGOZIOA
GIDAN
IRAGARTZEKO
DEITU**

948 56 21 07
618 88 26 27



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Aner
ZORIONAK Aner!!
Etxeko txikiena baina
irri handiena. Egun polit
polita izan maitia. Etxe-
koek.



**Benito eta Mari
Carmen**
ZORIONAK ama! zauden to-
kiyen zaudela ta, 53 muxu
haundi!!! Faltan botatzen
zeittu! Besarkada gozuat
Benin partes!!



Edu Zuñiga
ZORIONAK EDU!
Egun on-ona pasa! Izu-
garri maite zaitugu!!!



**Eider Perez
Garcia**
Eider, ZORIONAK zure lehe-
nengo urtebetetzean!! Egu-
neo gehiago maite zaitugu!!
Zure gurasoen partez.



Josu
Josu "ternera". "Los pajari-
tos" abestia, bere azken
eguna lanean prestatzen ari
da Benidormera joateko
asmoz.



Juanra
ZORIONAK aitaxol!! Iye
bazkai goxue prestatzen
dezun, hola sorpresa poli-
ttenbat etorko dakizu
ta. Muxu haundi bet Olaitz,
Maren, Onditz eta fameli
guzian partes.



Pilar
ZORIONAK amiña,
egun politte pasa, ta se-
gi beti bezin alei ta ani-
mosa. Muxu haundibet
fameli guzian partes.

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

apiribilak

4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

En Clave. Apirilaren 5ean, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Clinkerren.

Dantza

XIII. aurreku eta soinu zahar txapelketa. Apirilaren 6an, domekan, 11:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko musika eta dantza eskola.**

Dokumentalak

Gonbidatu izatetik protagonista izatera. Apirilaren 4an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Feministak eta Bilgune Feminista.**

Antzerkia

Nunca fuimos héroes. Apirilaren 4an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Tarima Beltza.**

Altos vuelos. Apirilaren 5ean, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko antzerki tailerra.**

Zinema

Asier eta biok. Apirilaren 4an, ostiralean, 21:45ean eta apirilaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Monuments men. Apirilaren 4an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 6an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Caballero Don Laton. Apirilaren 6an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteera

Altsasuko Bargagain (interpretazio gunetik). Apirilaren 6an, igandean, 9:30ean Etxarri Aranzako ikastolatik 8 km. **Sakanako ikastolen mendi taldeak.**

Txirrindula irteerak

Larreandi. Apirilaren 6an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20an Bioitza kanpinetik. 60 km. **Burunda mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Saiak, elfoak, mariorrazak, gizonak eta emakumeak. Apirilaren 5era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Clarity. Apirilaren 6ra, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean 11:00etatik 14:00etara Irurtzongo udaletxeko batzar gelan. **Crana fundazioa.**

Literatura eta artea uztartuz. Apirilaren 7tik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Iñigo Aritzta ikastola.**

Hitzaldiak

Kontsumo arduratsua. Apirilaren 4an, ostiralean, 19:00etan Irurtzongo udaletxean. **Hizlaria: Jose Luis Mariñelarena (Setem).**

Arrojado a los leones. Apirilaren 7an, astelehenean, 19:30ean Irurtzongo

Iraxo elkartearen. **Hizlaria: Sabino Cuadra. Liburu aurkezpena.**

Aurretiatzako borondate agiria. Apirilaren 8an, asteartean, 18:00etan Altsasuko jubilatue elkartearen. **Hizlaria: Mikel Biurrun.**

Heriotza zineman. Eutanasia eztabaidan. Apirilaren 10ean, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Zineforuma. Hizlaria: Manu Eziolaza (Duintasunez Hiltzeko Eskubidea).**

Tailerrak

Masajea. Apirilaren 5ean, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Arbizuko hondakindegira eta Lakuntzako konpost-gailura bisita. Apirilaren 5ean, larunbatean, 10:30ean Irurtzongo Foru plazatik.

Bigarren eskuko azoka. Apirilaren 6an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzongo plazan. **Itxipuru.**

Deialdiak

Zorri azoka, merkatu soziala. Apirilaren 4an, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranzako

estalopean.

Gure esku dago. Apirilaren 4an, ostiralean, 21:30ean Bakaikuko auzoan.

Hipotekek kaltetutakoek Plataforma. Apirilaren 4an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 4an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranzako plazetan elkarretaratzeak.

Gure esku dago. Aurkezpena. Apirilaren 5ean, larunbatean, 18:00etatik aurrera Bakaikuko plazan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 7an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.



IZEN EMATEKO EPEA:

APIRILAREN 7TIK 15ERA

948 56 48 35

ARALARKO MIKELDONEA INSTITUTUA



LANGABEZIA %4,28 JAITSI DA: Altsasuko enplegu bulegoan 1.498 langabetu zeuden izena emanda martxo akaberan, otsailean baino 67 gutxiago. Bestalde, Altsasuko en-

plegu bulegoaren bidez martxoan sinatu ziren 437 kontratuetatik 21 besterik ez ziren mugagabeak izan.

ezkaatza >>

SAKANA

Nafarroako Gobernuak ez du langileendako profil elebidunik ezarriko

Legeak aitortzen badu ere, ez udal euskaldunetako osasun-etxeetan ez liburutegietan ez da zerbitzu horiek euskaraz emanen direnik bermatu

Ostegunean Nafarroako Parlamentuan egindako osoko bilkuran, gobernuari eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzuetako lanpostuetan profil elebiduna ezar dezan egindako eskaera ez zen onartu. UPNk eta PPNk kontra bozkatu zuten. PSN abstenitu egin zen eta Bildu-k, Aralar-Nabaik, I-Ek eta Geroa-Baik aldeko botoa eman zuten.

Bilduk eta Aralar-NaBaik aurkeztutako mozioan "eremu eus-

kalduneean osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jar diezaien (pediatra, mediku, jendaurrean lan egiten duten langileak, Emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuak eta urgentziazko zerbitzuetako langileak)" eskatu zuten. Liburutegi langileendako eskaera bera egin zuten, hizkuntza normalizaziorako beste neurri batzuekin batera.

UEMaren balorazioa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkariak sala-

tu dute gobernuak ez duela legea errespetatzen. UEMATik nabarmendu dutenez, "Nafarroako Gobernuak, udalerri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideak zanpatzen dihardu, etengabe. Udalerri euskaldunetako herritarrek arazo larriak dituzte osasun etxe eta liburutegietan euskaraz aritzeko. Nafarroako Gobernuak axolagabe ageri da egoera honen aurrean, eta euskaldunak gutxiesten ditu".

Gobernuaren hizkuntza politikaren helburua euskara eremu publikotik erabat desagerraraztea



dela salatu dute UEMATik. Aldi berean, Nafarroak hizkuntza politika berria behar duela adierazi zuten, "asko dira aldaketaren alde ahotsa altxatu dutenak Nafarroan. Baldintza berriak sortu behar dira, agertoki berriak eraiki behar dira, non herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko diren". Azkenik, euskararen alde lanean jarraitzeko deia egin nahi du UEMAK.

>> Altsasu

Denok irabazi dugu

Emakumeek Santa Ageda ospakizunetako parte hartzeari buruzko liburua eta DVDa aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Iortian kultur gunean

Gonbidatu izatetik protagonista izatera. Neska-kintoak Santa Ageda festetan. Izenburu hori du gaur aurkeztuko den liburua eta DVDa. Altsasuko Feministak (AF) eta Bilgune Feminista (BF) taldeek ekoitzi dute lana eta neguko ospakizun horretan emakumezkoen parte hartzearen bilakera azaltzen du, protagonisten ahotsetik. "Jendeak jakiteko emakumezkoek festan espazioa lortzea zenbat kostatu izan den. Jendeak pentsatzen baitu betidanik izan dela gaur egun den moduan", azaldu digute AFko Gurutze Arregik eta Joaquina Zubiriak.

Pasa den urtean, estreinakoz Altsasuko kinta osatzen zuten neska-mutilek Santa Ageda ospakizuneko egiteko guztiak elkarrekin egin zituzten: dirua eskatu, opilen banaketa, bazkari-afariak, dantza... dena. Hori ikustean bururatu zitzaizkien AF eta BF taldeetako kideei emakumeen parte hartzearen



Santa Ageda. Kinta neska bat zortzikoa dantzatzen.

garapenaren bilketa lana egitea, "lekukotza uzteko".

Kafeak

Festan emakumezkoek espazioa irabazteko emandako pausuak kontatzearekin batera, argitalpenetan emakumezko gonbidatuek kafeetara joaterakoan jasotzen zuten tratu ere jasotzen da (bazkaldu ondoren harro zeuden mutilek deneta-

rik botatzen zieten). "Lehenengo kafe haren harreragatik emakumezko askok ez dute Santa Ageda ospatzen" azaldu digute AFkoek.

Garaian garaiko jendartearen isla izan da emakumezkoek unean unean jaso duten erantzuna. Urtean ibili dira AFkoak urteko kintoei, uda eta bestelako eragileekin hizketan emakumeek festan parte hartzeko eskaera egiten. Urtetik

urtera emakumezkoek urratsak eman dituzte festan dagokien protagonismoa eskuratzeko. "Jarrera aldaketarekin denok irabazi dugu" esan digute AFko kideek.

Zortzi eurotan salgai

Liburu eta DVDa elkarrekin salduko dira, **8 eurotan**. 200 aleko tirada egin dute eta herriko dendetan egonen da eskuragarri.

Kronologia laburra:

- 1962: Mutilek estreinakoz neska kafe batera gonbidatu zituzten.
- 1963: Neskek txistulariekin hitz egin eta mutilekin batera kalejiran ibili ziren, ez tirabirarik gabe.
- 1985: Neskek mutikoekin batera parte hartzea adostu zuten, baina ezezkoa jaso zuten. 17 neskek ez zuten Santa Agedarik ospatu.
- 1990: Santa Agedari buruzko jardunaldiak. Altsasuko Feministak antolatuta.
- 2000: Aurreneko erregina aukeratu zuten.
- 2001: Erregina eta erregina-ordea aukeratu zituzten estreinakoz.
- 2005: Bi neskek zortzikoa dantzatu zuten.
- 2008: Lau neska ez beste guztiak dantzatu zuten zortzikoa.
- 2013: Neska-mutilek dena elkarrekin ospatu zuten.

Pakea egin

zure elikagaiekin eta zure pisuarekin

Hizlariak:
Holga Martinez de Lagrán (Psikologian Doktorea)
Ana Carmen Huarte (Dietista- Nutrizionista)

Eman izena:
 948 460 993
 661541 431
 info@xalok.es

8 formazio saio
 Parte hartzaileen kopuru mugatua

www.xalok.es

948 460 993 · 661 541 431 · Burundabidea 14 · Etxarri Aranatz

xalok
 CENTRO ESTETICO
 DEPORTIVO Y
 NUTRICIONAL



Nonerabili

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI ARANATZ

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako beturreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai





Argia

Xabier Reparaz Extramiana

Udaberriaren murgilduta, ordu aldaketak arratsaldeak luzatu dizkigu berriro ere. Bizitzak hartu ditu berriz txoko guztiak. Eloorriaren lorepean, berde argiak tindatu ditu mendiak. Zizazalek kontuz emanen dituzte pausoak inork ezagutu ez ditzan beren zizategi preziatuak. Iru-di ederra eguzkiaren argiak ematen digun bitartean. Ederra oraingoz behintzat, Beriain-

pean beste argi mota bat barreiatzear doa eta. Altzairuzko zutabe handietatik eskegitako kable mardulek Frantziako zentral nuklearretatik ekarriko duten argia. Belardietan, kirkirren kantua estaliko duen burrunba elektrikoak, gure osasuna airean daramana.

Gure baso zabalek nahiko lan kutsadura hori guztia xurgatzen. Gure Osasuna bezalaxe,

bigarren mailan amaituko dugun beldur naiz. Bigarren mailako hiritar, agintarien mesprezuaz gure bailarak jasan behar baititu gaitz guztiak, onura apurrik jaso gabe. Gure hizkuntza bazterturik, errauskailuak alde batetik, argindarra bestetik, eta erdi erditik abiadura handiko trena Sakanan barrena. Esperantza badugu ordea, Osasuna jaitsiko ez den

bezalaxe, argindarrezko autobidea geratuko dugun itzaropena. Horrenbeste kalte egin digun krisi honek, proiektu handinahi hauek geratzen lagunduko ote digun ustetan. Bitartean, udaberriko zizak dasta ditzagun eta gorde dezagun memorian berde argiak tindatutako lur hau, elorriaren lore zuriez goza dezaten gure ondoren datozen belaunaldiek.

astekoa

hara zer dien

Noraino iritsi behar dugu?

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatu berri dugu, joan den martxoaren 21ean, migratzaileen erabateko kriminalizazioaz markatua joan zen eguna, oraingoa ere.

Instantzia ezberdinetatik migratzaileak sobran direla ulertarazi nahi da, gizartearen ziurtasunerako mehatxu direla, gure ongizatea kolokan jartzen dutela. Europak bere mugak gogor itxi ditu. Pertsona orok normaltasunez migratzeko duen eskubidea ukatu egiten diete Lehen Mundua deitzen denaren politikek, baina migrazioek jarraituko dute, inongo legeen gainetik; inolako trabazailtasunen gainetik...

Ikuskizunean oinarritzen den bizi gareneko gizarteak ez dio aurre egiten errealitate gordini, eta beste alde batera begiratzeko du, migratzaileak gure arazoan errudun egiteko saiakera batean. Gure ardura eta eginkizuna da, beharrezkoa da arrazakeria elikatzen duten zurrumurruak desegitea, gain beharrezkoa. Etorkinak ez dira bizi dugun krisiaren arrazoia, ezta langabeziarena, ezta lan duin ezarena ere. Krisi ekonomiko hau merkatu eta elite ekonomikoek sortu dute.

Ez dago harreman zuzenik migrazioa eta laguntza sozialen artean. EAEk, Estatuko laguntza sozialen %40 biltzen du, eta bertan dagoen etorkinen portzentajea %6,8koa da. Orduan, nola ulertzen da laguntzen inguruan "efecto llamada" esaten dena? Zergatik uste du euskal herritargoak, dagoen migratzaile kopurua egiatan dena baino hiru aldiz hangiagoa dela? Zer nolako interesa dago uste-sinesmen hauen sorreran?

Arrazakeria eta xenofobia bezalako lakra sozialekin bukatzetik oso urrun bagaude ere, badago itzaropenerako daturik. Izan ere, eta beti Ikuspegiaren datuen arabera, 2012. urtean euskal biztanleriaren %11,6ak migrazioa arazo bezala bizi bazuen, 2013. urtean portzentaje hori %7,2ra jaitsi zen.

Oraindik egiteko asko badugu ere, migrazioa gure arazoan oinarri bezala azaldu nahi duen manipulazio interesatuaren aurrean, zorionez herritargoa gero eta kritikagoa agertzen da halako kontuen aurrean.

Bego Zestau

Immigrazio Zerbitzua

barrutik kanpora

Portland-en ihesaldia Irurtzungo Ingurumen Jardunaldietan

Joan zen ostiralean, martxoak 28, Irurtzungo Ingurumen Jardunaldien barnean, gure plataformarekin batera Cementos Portland-en parte-hartzea aurreikusia zegoen, zementu-fabriketan egiten den hondakin errausketa-ri buruz hitz egiteko. Baina zementugileak ez ziren agertu.

Ez da harritzekoa ihes-jokabide hori, batez ere, gizartearen oniritziarik gabe hondakinak kudeatzeko proiekturik inposatuko ez zutela agindu zutelako eta gero beren hitza janzek Sakanako udal-araudiak eta sakandarren borondatea saihesteko UPrS-a sustatu dutela kontuan hartzen badugu. Benetan zaila da, UPrS hori jusan

tifikatzeko lanpostuak mantenduko zizutela adierazi eta gero, eta hondakinak erretzeko eta magnesita ekoizteko beharrezko dituzten baimen guztiak eskuratu ondoren, langileen %30a bota dutela azaltzea.

Nafarroako Gobernuari gezurra esan zioten hondakinak erretzea ezinbestekoa zutela adierazi ziotenean, CO2 isurpenengatik zigorrik ez jasotzeko, benetan, dohainik eskuratutako ehunka mila tona isurpen eskubide soberan dituztenean, lotsagabeki salduko dituztenak dirua barra-barra irabazi eta beste enpresa batzuek gehiago kutsatzen jarrai dezaten.

Nola azaldu minbizi sortzaile diren faktoria hauen inguruan heriotza-tasa nabarmen hazten dela dioen Madrileko Carlos III.a Institutuak kaleratutako txostenean jasotzen diren ondorio larriak, edo isurpen mugetan Nafarroako Gobernuak baimendu dizkien salbuespenak, edo jokabide ustelagatik jasozuen eta Auzitegi Nazionalak berretsi berri duen kondena, beste enpresa batzuen hondamena, 200 lanposturen galera eta nafar zergadunoi egin digun 100 milioi euroko iruzurra agerian utzi duena.

Etengabe gezurretan eta iruzur egin nahian eta aurpegirik eman gabe. Beren langileei jarduera

anker honen kontra dihardugunon aurrean beligerantziak jokatze eskatuz dabilzan Portland-en arduradunen koldarkeria, ezin da inolaz ere justifikatu.

<http://olaztinerrausketarikez.blogspot.com.es/>



gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Gure Esku Dago

Osane Leiza Urrestarazu eta Erkuden Barandiaran Goñi

Hitz hauek elkarren ondoan behin baino gehiagotan entzun izan ditugu gure egunerokotasunean. Oraingoan baina, esanahi berezia hartu dute gutariko askorentzat.

Lehenengo, Jon Maiaren gidoia daraman *Gazta Zati bat* ikusi genuen. Horrek nolabaiteko

harra sortu zuen herritar askorengan. Eskozian izango den galdaketa ere, inbidiaz begiratzen dugu, Katalunian Diada arrakastatsuen berotasuna sentitu genuen eta Euskal Herrian bizi dugun egoera berriak zerbait egiteko grina hori areagotu egin du.

Ez dakienarentzat jakin dezala, datorren ekainaren 8an Durango eta Iruña lotuko dituen giza kate bat osatuko dugula 50.000 euskal herritarrok. Herri gisa geu-

re etorkizuna erabakitze esku-bidea dugula eta erabakia hartzea herritarro dagokigula pentsatzen dugunok elkartu eta ariketa demokratiko hori martxan jartzea da gure asmoa (ikus www.gureeskudago.net).

Horrela, Sakanan Gure Esku Dago lehenengo batzordeak sortzen hasiak gara, ekimen honetan ere, gure parte-hartzea oso garrantzitsua dela uste baitugu.

Euskal Herriko hainbat txoko-

tan egiten ari diren bezala, erabakitze esku-bidearen alde, pentsaera molde ezberdinetako herritarrok elkartzea dugu helburu. Horregatik, batzorde sortze horietan parte hartzera dei egiten dizuegu ora indik batzorderik ez duzuen herri horietako herritarrei, baina bereziki bakaikuarrak gonbidatu nahi ditugu berriaz, gaur, apirilak 4, auzoan 21:30ean egingo dugun bilerara. Ordura arte. Sakandarron garaia da!

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea eta Iker Uribe
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

BI ENPRESA ALIMENTARIAN: Astelehene-
tik atzora arte Bartzelonan Alimentaria
azoka egin zen, mundu osoko elikagai eta
edariak ekoiztu eta banatzen dituzten

3.800 enpresa bildu zituena. Haien artean
zeuden Altsasuko Katealde Artesanos eta
Olaztiko Quesos La Vasco Navarra.

sakanerria >>

SAKANA

Kooperatibak talde-ekintzailetzarako eredu



Altsasuko talde ekintzailetasun jardunaldia

Garalurrek antolatutako jardunaldian ANELen ekintzaileen kooperatiba aurkeztu zen

Finantza krisiak sortutako gaur egungo egoeran haien enpresa egitasmoak aurrera ateratzen dituzten ekintzaile asko dago. Cederna-Garalurrek ekintzaile-

tza taldean ere landu daitekeela azaltzeko eta sentsibilizatzeko jardunaldia antolatu zuen. Bere kudeatzaile-gerente Isabel Elizalde azaldu zuenez, "berebiziko garrantzia du ekintzailearen banakako izaera hori gainditzea. Enpresak erronka anitz ditu taldean landu

beharrekoak". Hiru kooperatiben esperientziaren berri eman zen, baita ekintzaileen kooperatibarena ere.

Altsasuko Iortia kultur gunean ostegunean izan zen jardunaldian 16 pertsonak parte hartu zuten. Haietako askok proiektu-asmoak zituzten eta beste ekintzaile-taldeen esperientziarekin abaratu ziren. Zailtasunak zailtasun, talde-ekintzailetza komenigarria, beharrezkoa eta

atseingarria dela azaldu zuten eta lana eta erantzukizuna partekatze-ko aukera ere ematen duela adierazi zuten. Hitz horiek Gertu Sakanako kooperatiba altsasuarreko Andres Bengoetxearen eta Edurne Goikoetxearen, Curvados Alzania kooperatiba altsasuarreko Jose Antonio Viudezen eta Raul Mendozaren eta Basaburuako Ernai-ko kooperatibako Laura Martiarenaren eta Sole Artola lakuntzarren ahotik entzun zituzten.

Aurrenekoek industria-horniketa instalazioetan eta etxeen arloan lan egiten dutela azaldu zuten eta bost hastetik zazpi izatera pasa direla. Bigarrenek, euren langabezia kapitalizatu eta lehen aritzen ziren jarduera bereko enpresa sortzeko emandako urratsak azaldu zituzten. Azkenek, beste lau kiderekin batera, ibarreko kultura-zentroa den taberna kudeatzen dutela azaldu zuten.

Ekintzaileen kooperatiba

ANELeko Elena Zabalzak eta Maitte Berasainek martxan jarri duten proiektuaren berri eman zuten: ekintzaile kooperatiba. Azaldu zuten, ekintzaileei zuzendutako proiektua da. Haren bidez ekintzaileak lanean hasi daitezke enpresa

bera martxan jarri gabe. Ekintzaile kooperatibak bezeroak bilatzeko, fakturak egiteko, erosketak egiteko eta abarrerako aukerak ematen dizkio legearen barruan. Gainera, ANELeko adituen babes jasotzen dute ekintzaileek. Zabalzak eta Berasainek azaldu zuten, "ekintzaileek modu erre-

alean ikusi ahal izanendute ea beren proiektuak funtzionatzen duen, eta zein modutara izan daitekeen bidegarria, betiere arrisku txikiago batekin". Jakinarazi zuten, hiru enpresa-proiektu daude ekintzailetza kooperatibaren babesean, eta beste hainbeste baloratzen ari dira kooperatiban sartzeko.



Ibarrerako 3D animazio eskola tailerra

Mank-ek eskatutako birziklatze eskola tailerra kanpoan utzi du gobernuak

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) aurten 11 eskola tailer diru lagunduko ditu. 215 pertsonari hainbat arlotan prestakuntza emateko NEZek aurten 1.656.889 euro bideratuko ditu eta beste 2.162.369 euro heldu den urtean; 3.819.259 euro guztira.

Prestakuntzara bideratuta dauden eskola tailer horiek langabe-tuei zuzenduta daude. Bereziki 30 urte berakoendako eta bazterke-ta soziala bizi edo horretarako arriskuan dauden pertsonen zuzenduta daude. Haiek lan munduan sartzeko aukera izan dezaten antolatzen dira eskola tailerrak.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Sakanak 3D anima-

zio eta multimedia produktu interaktiboak sortzeko eskola tailerra hartuko du. Nueva Gestión fundazioak Intermedia Activa SL enpresarekin elkarlanean sustatu dute eskola tailerra. 30 urtetik beherako 18 ikasle hartuko dituzte eskola tailerlean. 15 hilabeteko iraupena izanen du tailerrak. Hura garatzeko aurten 145.441,30 euro eskuratuko dituzte NEZetik eta heldu den urtean 218.161,94 euro; guztira 363.603,24.

Helegitea

Mank-ek enplegu tailerren bitartez 16 lagun birziklatzean trebatu nahi zituen, gero lanpostuak sortzeko. Horretarako NEZi laguntza eskaera luzatu zion baina eskaera baztertu du. Mank-en helegitea jartzea aztertuko dute.



Hasi gara Sakatxartel sariak banatzen

Bierrik fundazioko babesle diren makina bat sakandarrek pasa den Sakatxartel asteburuan Beleixeguaixe txartelarekin erosketak egin dituzte. Sakanako 80 establezimendu baino gehiagotan erosketak egiterakoan deskontuak eta abantailak eskuratzen dituzte fundazioren 1.570 babesleek. Sakatxartel asteburuan, gainera, erosketak egiteagatik bisari ederren zozketan sartu dira babesleak.

Beleixeguaixe txartelarekin erosketak egin zuten M^a Carmen Bautistak Astizko aterpean bi pertsonendako bazkaria eta Mendukilo kobazuloetarako bi sarrera eskuratu ditu. Nekane Zubizarretak, berriz, Iortiarako bi abonua eta norbaiti Beleixeguaixe txartela opartzeko aukera eskuratu du.

Erosketa handia edo txikia egin da ere, Bierrik fundazioko 1.570 babesleek krisi garai honetan Saka-



M^a Carmen Bautistak eta Nekane Zubizarretak eskuratu dituzte sariak.

nako establezimenduei bultzada emateko aukera izan dute Sakatxartel asteburuarekin. Gainera, urte guztian deskontu eta abantailak eskura dituzte ibarreko 80 bat establezimendutan. Txartela eskuratzeko, bestalde, Sakanako euskarazko hedabideak laguntzen dira. Horretarako 948 564 275 eta 948 562 107 telefonora hots egin edo www.guaixe.net atarian sartu da. Dendaren batek bere abantailak

Beleixeguaixe txartelaren bidez sakandarrei eskaini nahi badie aipatu telefonoetara jo dezakete.

Hurrengo Sakatxartelak

Maiatzak 30-Garagarrilak 1
Garilak 25-27
Irailak 26-28
Azaroak 28-30

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Asteleheneetik ostiralera
**Eguneko menua
8,25€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomata
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. N° 272/04

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaunak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

» Etxarri Aranatz

Udalak etxarriarrak herri galdeketan parte hartzera animatu ditu

Erabakitze eskubidearen aldeko adierazpen instituzionala onartu du udalak

Ostiralean Etxarri Aranazko Udalak osoko bilkura berezia egin zuen eta erabakitze eskubidearen aldeko adierazpen instituzionala onartu zuen. Udalbatzak onartutako agirian adierazten da “erabakitze eskubidea herrien oinarritzko giza-eskubidea” dela, “besteak beste Nazio Batuen Gutunak eta Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Itunak, 1966an onartuak”.

Udal hautetsien iritziz, “herri batek bere etorkizunari buruzko



Etxarri Aranazko Udaleko zinegotzi eta kargudun ugari bildu ziren ostiralean.

eztabaida baketsua egitea, eta etorkizunean zer izan nahi duen

askatasunez erabakitzea, egin daitekeen ariketarik demokratiakoena eta zintzoena da”. Gaur egun erabakitze eskubidea Europako hainbat lurraldetan gauzatzen ari direla nabarmendu ondoren, etxarriarrak ere “eskubide hori gure herriangauzatu ahal izatea aldarrikatzen dugu, hori baita hemengo gehien-go sozial, politiko eta instituzionalak eskatzen duena”. Apirilaren 13an 16 urtetik gorako etxarriar guztiak independentziari buruzko herri galdeketan parte hartzera animatuz bukatzen da adierazpena.

Topaketa instituzionala

Bilkura beraren ondoren udaletxean elkartu ziren egungo hautetsiak eta aurreko legealdietan udalardurak izandako beste hainbat. Erabakitze eskubidearen aldeko topaketa instituzionala izan zen. Tartean ziren alkate izandako: Javier Mauleon, Moises Goldarazena, Manolo Ijurra, Fernando Flores, Iraitz Goñi eta Maider Goñi, baita gaur egungoa ere, Joxi Bakaikoa. Udalak aurretik onartutako adierazpen instituzionala euren sinadurekin berretsi zuten guztiek eta familia argazkia ateratu zuten.

» Altsasu

Historia, memoriaren lerro jarraitua



Ikusmin handia piztu zuen Altsasu Memoria taldeak ostiralean lortian egindako aurkezpenak. lortia bete egin zen.

Altsasu Memoriak herriaren historiaren bilketa lanaren aurreko atala aurkeztu zuen

Iortia kultur guneko areto nagusirako gonbidapen guztiak aspaldi agortuak zeudela, ikus-entzunezko emanaldi batekin, ostiralean aurkeztu zuen Altsasu Memoriak herriko lehen aipamenetik 1950era arteko bilketa lana. Antolatzaileek azaldu dutenez, “Altsasuk historia osatu eta berreraikitze asmoz lanean gabiltza. Historia ofizialaren bazterrean, ezpondetan zokoratuak izan diren protagonista eta gertakariei bide eta leku egiteko”.

Zazpikote batek osatzen du Altsasu Memoria. Haietako bat da Josu Imaz eta ostiralean jendeak izan zuen erantzunarekin pozik zeudela adierazi zigun. Urte beteko jardunaren emaitza da ostiralean taldeak aurkeztu zuena. Imazek argitu zigunez, taldekideek landu zituzten gaiak, baina historiako aldi jakinak lantzeko kolaboratzaileak ere izan dituzte. Datu bilketan sorpresa asko izan dituztela esan digu Imazek. Nazien Mauthausen kontzentrazio eremuan hildako altsasuar baten senideak Kataluniatik etorri ziren

ostiralean Altsasura.

Lehen zatia izan zen aurkeztutakoa. Jasotako dokumentuak sailkatu eta argitaratzeko zein itxura eman aztertzen ari dira orain Altsasu Memoria taldekoak. Ostiralean jasotako guztia ezin izan zuten eman. Baina hainbat material erakutsi zituzten, tartean Eguzkiza, Fernando Urkijo eta Nati Goikoetxeari egindako elkarriketak. Lan horrekin segitzen duten bitartean 1950etik gaur egunera bitarteko bilketa lana ere egiten hasi dira Altsasu Memoriako kideak.

» Larrezabal gaztarendako aitortza berria

Pasa den urtean estatuan egindako gazta ekologiko onena Patxi Amillano Garasa altsasuarraren Larrezabal-Eco izan zen. Hala erabaki zuen abenduan Nekazaritza Ministerioak, bi urtetik behin antolatzen duen Espainiako Gaztarik Onenak sariketan. Abenduan jakinarazi zuten saria atzo jaso zuen Amillanok Bartzelonan, Alimentaria azokan.

Sariaren berri izan zuenean, Idiazabal Jatorri Izendapeneko buru Jose Mari Ustarrozek bere garrantzia nabarmendu zuen:

“epaimahaia erkidego guztietako adituek osatzen dute. Idiazabal gaztaren zaporea ezaguna denez, sari hau aurkako zelaian irabaztea bezala da”. Maila bakoitzean sari bakar bat ematen dela ere nabarmendu, “irabazlea txapel-duna da”.

Altsasuarrak pasa den urtean Birminghamgo World Cheese Awards txapelketan urrezko domina lortu zuen babestutako jatorri izendapen mailan ere. Amillano 2003tik Idiazabal Jatorri Izendapeneko kontseilu arautzaileko kidea.



Irabazleak, Idiazabal Jatorri Izendapeneko buru Jose Mari Ustarrozekin.

SAKANA



Batxilergoko ikasleak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza ezagutzen egon ziren.

Institututik NUP ezagutzera

Aralarko Mikel Donea institutuko Batxilergoko 2. mailako 31 ikaslek goiz berezia izan zuten herenegun. Klasea utzi eta Nafarroako Unibertsitate Publi-

kora (NUP) joan dira bisitan. NUPeko kanpua ezagutzearekin batera ikasleek erakundearen heldu den urteko hezkuntza eskaintzaren berri jaso dute (18

gradu, haietatik bi bikoitzak). Ate irekien jardunaldiaren (apirilaren 5ean eta 12an) eta garagarriko aurre-matrikulazio epearen berri eman diete.

» Etxarri Aranatz

Udalari harremanak euskaraz eskatzen hasi dira

Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) sustatu duen udalak eta biok euskaraz dinamikaren barruan, aurreko larunbatean 35 etxarriarrak udalarekin harreman guztiak euskaraz nahi dituztela sinatu zuten. Atzetik eskaera gehiago etorriko direla azaldu dute EHEtik, izan ere, herriko hainbat tokitan kutxak jarri dituzte etxarriarrek eskaera-orria sinatu, han sartu eta gero EHEko kideen bidez udalera eramateko. +www.guaixe.net



Deia

EHEk bihar Gasteizen ez gara espaloitik jaitziko lelopean ospatuko den Euskaraz Bizi egunean parte hartzeko gonbitea luzatdu.

» Irurtzun



Itxipuruk antolatutako azkeneko bigarren eskuko azoka.

Senegalgo kontsultategi bat egiteko, bigarren eskuko azoka

Igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzongo plazan

Itxipuru taldeak etzi goizerako udaberriko bigarren eskuko azoka antolatu du. Irurtzongo plaza-tik pasatzen denak mauka ederrak opatzeko aukera izanen du arropa, liburu, elektrotresna, disko eta bestelako arteen. Ohi bezala, azokatik pasatzen denak tabernatxoan pintxo beroak opatuko ditu. Gainera, umeendako tailerak eta jolasak izanen dira, zuzeneko musika eta beste.

Igandeko bigarren eskuko azoka kontsumoa murriztuz, produktuak berrerabili eta zaborraren sorrera gutxitzeko helburuz antolatuta da. Baina produktuen salmentatik sortutako irabaziak proiektuetara bideratzen ditu Itxipuruk

eta oraingo honetan Senegalgo osasun kontsultategi bat eraikitzen bideratuko da plazatik pasatzen diren guztien ahalegina.

Lagunduko den egitasmoa

Darou Salamen osasun kontsultategi bat jaso nahi da, herritarren higieniko-sanitarioak hobetzeko. Senegalgo aldean, ingurune pobretan, dagoen herri txiki bat da. Osasun, hezkuntza, ura eta argindarrikeria duen herri txikia da Darou Salem. Touba herritik gertu dago, Diurde eskualdean, Mbacke departamentuan. Diurdelen 824.670 pertsona bizi dira, gehienak gazteak eta emakumezkoak. Landa eremu horretan nekazaritza da nagusi, abeltzaintza pixka bat ere bada. Baina lehortekak eta lanpostu faltak

gazteak eskualdea eta Senegal bera uztera bultzatzen ditu.

Osasun arreta ez da doakoa eta herritar gehienek ez dute kontsulta bat, erradiografia edo botikak erosteko nahikoa diru. Gaitz kutsakorrek pairatzeko arrisku handia dute Darou Salemeko biztanleek. Horregatik, osasun kontsultategi bat jaso nahi dute eta han ohiko gaitzak artatu ahal izateko (malaria, paludismoa, desnutrizioa, infekzioak, sarna, zauriak, dengea...). Aldi berean, kontsultategitik herritarrei zuzendutako osasun eta higiene kanpainak sustatu nahi dituzte, arreta berezia jarritz haurdun dauden emakumeengan eta haien umeengan. Egitekoen zerrenda ere GIBaren prebentzio kanpainak daude.

» SAKANA



Planari ekarpenak egiteko epea luzatu da

Apirilaren 10era arte egin ahal zaizkio ekarpenak Sakana 2020 Plan Estrategikoari garapena@sakana-mank.com helbidean

Elikadura (lehen sektorea eta elikagaien industria), industria (industria eta enpresa-zerbitzuak), energia (basogintza, energia berriztagarriak eta eraikuntza) eta turismo arloko diagnosia egin ondoren lan talde banaren lanarekin sortu da Sakana 2020 Plan Estrategikoa. 13 ardatz, 54 lan ildo eta 147 ekintza jasotzen dira plan horretan. SPE dokumentua www.sakanagaratzen.com web orrian ikusgai dago.

Sakanako Garapen Agentziak, Cederna-Garalurrek eta Sakan-tzen Sareak gidatu dute SPE eta sakandarrak dokumentua ezagutzera animatu dituzte. Baita ekarpenak egiteko ere, denen artean osatzeko. Hainbat eragileren eskaera jaso ondoren, ekarpenak egiteko epea aste bat luzatzea erabaki dute. Ekarpeneren artean lan talde bakoitzak aztertuko ditu eta ondoren Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia eramanen dira han SPEk azken oniritzia jasotzeko. Udalek dokumentuari babesamozio bidez ematea ere eskatuko dute.

» Arbizu

Dagoenari eustera

Horretara jo du udalak aurtengo aurrekontuak onartzerakoan

Miloi bat euroko aurrekontua kudeatuko du Arbizuko Udalak aurtun. Finantza egoerak ez du inbertsiorik egiteko aukerarik ematen eta udalak eskaintzen dituen zerbitzuei eustera bideratuko ditu bere ahaleginak. Miren Mendinueta alkateak azaldu digunez, udal finantzen egoera hobetu eta dituen zorrak murrizteko neurriak hartu dituzte. Horren barruan dago Tracasa enpresa publikoaren kontratazioa. Haren bidez udal zergak berrikusteko plana indarrean jarri du.

Kattuka haur eskolaren kanpoko aldean lan gutxi batzuk egiteko daude eta haiek despedituko dituzte aurtun. Bestalde, Olatzea hotela udalak zuzenean kudeatuztik errentan ematera pasa da udala.

» Urdiain

Udalak baso enkantea eginen du

Urdiaingo Udalak plegu itxiko enkantearen bidez 1.496 pago saldu nahi ditu. Haiei 39.973 euroko balioa eman die. Interesatuek hila-ren 23ra arte daukate proposamenak egiteko aukera. Lote bakar horretako 563 pagoek 638,84 metro kubiko zur eta 327 egur kubikatu dituzte. Gainontzeko 933 eta-tik 1.315,8 metro kubiko egur atara daitezke.

10. URTEURRENA

Gure 10. urteurrena ospatzeko, abenduaren 31 baino lehen etxebizitza bat erosten duenak, 2 lagunendako eta pentsio erdian Kanariar Uhartetara joateko bidaiaren zozketan parte hartuko du.

Zozketa 2014/12/31an Altsasuko notaritzan egingo da.

ALFA54
INMOBILIARIA

San Juan 54 behea
ALTSASU

948 562 711
679 308 443

olaga@iaalfa.es
www.alfainmo.com



OLAZTIN

Altzariz jantzitako pisua, trastelekua. 4 logela, komuna, egongela, sukaldea. Sartzeko prest.


40.000 €



ARAIAN

Adosatua lorategiarekin. Garaje eta txokoa. Berriak. Finantziatzeko baldintza bereziak.

115.000 €



ALTSASUN

Etxe adosatua. Altzariz jantzita. Logela beheko solairuan. 2 terraza. Su baxua.

160.000 €



OLAZTIN

Adosatua lorategiarekin. Erdi-berria. 4 logela, 3 komun. Oso argitsua.

170.000 €



ETXARRIN

Harrizko etxea. 143m². Su baxua. Altzariz jantzita. Portxea. Berritua. Lorategia.

160.000 €



ALTSASUN

Apartamentu berritua. 60m², 15m² trastelekua. Balkoia. Leku oso onean.

80.000 €



URDIAINEN

170m². Etxe berritua. Altzariz jantzita. Garajea. Su baxua. Lorategia. Ganbaran apartamentua egiteko aukera.

180.000 €



MALLORCA - ALTSASU

Mallorcan, hondartza ondoan dagoen pisua Altsasuko pisu batengatik trukatzeko da.

SAKANA

Abortatzeko eskubidearen alde egiteko deia

Bihar, 17:30ean Iruñeko Golem zinemetatik abiatuko da manifestazioa

Euskal Herriko mugimendu feministako kide diren Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak, beste hainbat talderekin batera, bihar Iruñean egingen den manifestazioan parte hartzeraz deitu dute. Gure eskubidea, gure erabakia leloa du manifestazioak. Mobilizazioan emakumeen gorputzak askeak eta burujabeak direla aldarrikatuko dute, "baita dagozkigun sexu eta ugalketa eskubideak ere, ama izateko edota ez izateko eskubidea barne".

Abortua berehala Zigor Kodeetik atera dezatela, eta emakumeen eskubidetza har dadila, "ema-



Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak manifestaziora joateko deia egin dute.

kumearen borondate librez eta eskaeraz gauzatuko dena". Aldi berean, haurdunaldien etenaldia osasun publikoan egiteko eskatuko dute. Horretaz aparte, Espainiako Gobernuak sustatu duen aurreproiektuaren kontrako protesta egingen dute: "kolpe batez ezabatzeko baititu sexu eta ugalketa esku-

bideei buruzko legeak, diktadura frankistaren garai atzerakoiak abortatzeko praktiketara atzera egingez". Feministek deialdia egiterakoan "emakumeon sexu eta ugalketa eskubideekiko errespetua" eskatu dute, hura baita "hezkuntza aske zein aniztasun sexualerako abiapuntu gisa".



Lurkide egunean goi tentsioko linearen kontra egin zuten. Eguerditik jende ugari izan zen Irurtzunen. ITZIAR MATXAIN

Goi tentsioko linearen aurka eta lurraren taupaden alde 600 lagun elkartu dira

247 taupada lurrarekin bat leloarekin, jai giroan egin zituzten aldarriak igandean Irurtzunen

Goi tentsioko lineak beharko lituzkeen dorreetan argazkiak atera zituzten. 247 dorre dira osotara, 127 kilometro guztira. Ezkio-Itsasoa eta Deikaztelu lotzeko beharko lirakeenak dira kopuru horiek. Giza katea bailitzan, goi tentsio

hori egiteko beharrezkoak lirakeen dorreen tokian argazkiak atera zituzten. Dorre horiek bertan jartzeak sortuko lukeen suntsiketa argazki bidez adieraztea izan da xede nagusia. Dorre gehienak, mendi inguruan eta paraje berdeetan ezartzeko asmoa baitu Gobernuak. Ingurumenerako kalteez aparte, inguruan bizi direnen

osasunean ekar ditzakeen ondorioak ere salatu zituzten.

Herritar andanak irudi horien bidez erakutsizuen ez duela goi tentsioko linearik nahi. Konpromisoak ere hartu zituzten lurraren defentsan aritzeko. Argazki horiek baliatuko dituzte hemendik aurrera kanpaina berri bat ekiteko. www.guaixe.net

Olatzagutia

Porlandegiei emandako isurketa eskubideen kontrako helegitea

Porlandegi guztiei isurketa eskubideak murrizketa eskatu dute

Errausketaren kontrako plataformen estatuko koordinadorak jarri du helegitea. Porlanaren sektoreak negutegi efektua sortzen duten gasen isurketarako estatuaren doako kopuru bat du. Koordinadorak salatu duenez, "benetan egiten duten isurketa baino handiagoa da kopuru hori. Porlandegiek soberan zituzten isurketa eskubideak salduz 400 milioi euroko irabaziak izan zituzten 2008 eta 2012 artean". Bitartean, aldi horretan Kiotoko protokoloak zehaztutakoa baino isurke-

ta gehiago egin ziren Espainian. Horregatik, "denbora tarte horretan estatuak 700 milioi euroko balioko isurketa eskubideak erosi behar izan zituen eta 40 milioi pasa den urtean".

Enpresen ekoizpena jaitzidenez, ingurumen estatu idazkaritzak otsaila akaberan 163 enpresen (7 porlandegi tartean) 2013-2020 aldirako isurketa eskubideak murrizteko ebazpena eman zuen. Azken horren ebazpenari jarri diote helegitea, ezarritako murrizketa eskastzat jotutako.

Azaroan adostutakoaren arabere-

ra porlanaren sektoreak batz besterik 21,9 milioi doako isurketa eskubidea lortu zuen 2013-2020 aldirako. Porlandegien azken isurketa datuak 2012koak dira eta orduan 11,5 milioi CO2 isuriak egin zituzten. Koordinakundea kexu da behar baino isuri eskubide gehiago emanenez porlandegiek hauek salduz negozioa egiten dutela. "Gainera, hondakinak erregai gisa erabiliz, isurketa eskubide gutxiago gastatzen dituzte. Isurketa eskubidesoberakin handiagoak dituzte eta, beraz, negozioa egiteko aukera gehiago" kexu dira koordinakundean.

Giza katearen aurkezpena

Bihar, 18:00etatik aurrera, Bakaikuko plazan

Gure Esku Dago ekimenak Gernika eta Iruña artean 123 km luze dituen giza katea osatu nahi du. Erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimen hori garagarriaren 8ko eguerdian izanen da. Sakanan, Lizarrusti eta Aizkorbe artean egingen da giza katea. Bakaikuarrak ekimenaren berri izan dezaten eta parte hartzeraz animatzeko bihar aurkezpena egingen da plazan. Aurkezpenari babesa eman diote 1977tik gaur egun arte Bakaikuk izan dituen zortzi alkateak.

Egitaraua

18:00etan Gure Esku Dago materialaren salmenta.

18:30ean Lasteketa-bira herritik.

19:00etan Aurkezpena plazan. Ekimeneko kideak, txalapartariak, akordeoilaria.

Ondoren, argazki erraldoia eta auzatea.

Zero lerroa

Jaialdira joan ezin duenak eta diru ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake berea: ES07 2095 5500 40 9113685012.

Uharteko tren istripuaren urteurrena gogoan



Astelehenean, 17 urte bete ziren Uharteko tren istripua izan zela. 18 hildako eta 10 zauritu utzi zituen, haietako 5 larri. Hildakotako bat emakume altsasuar bat izan zen. Ezbeharrak gogoan, urteroko moduan, tren istripua pairatu zutenei, bai hildakoei, bai bizirik aterata zirenei, baina baita erreskate lanetan laguntza eman zutenei ere omenaldi xumea egin zitzaion Uharteko Arakilen igandean. Hildakoei gogorarazteko elizkizuna eta gero ezbeharraren tokian dagoen orogarriraino lore eskaintza egin zuten elkartutakoek. Hartan parte hartu zuen Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak. Herrialde hartakoak izan ziren hildako gehienak, 10, eta haien senideek Aldundiari adierazi izana zioten ezbeharrak gertatu zirenean eta ondoren uhartearrekin izandako eskuzabalatasuna eta elkartutasuna eskertu beharra zegoela. Garitanok, Gipuzkoaren izenean, lore eskaintzan parte hartu zuen eta egindako guztiagatik uhartearrendako esker oneko hitzak izan zituen.

AHTren kontrako karakolak

Eurien ondoren karakolak eguzkitara nola, halaxe aterata dira Euskal Herriko paretetara Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako karakolak. Pintada moduan. Tartean Etxarri Aranatz edo Altsasun. AHTren kontrako Mugitu! Mugimenduko (MIM) kideek egin dituzte karakol horiek. Haien bidez salatu nahi izan dute "presazko gizartean lekualdatzeaz azelerazioak ez duela bizitzaren denbora gehiago ematen, ekoiztu eta kontsumitzeko denbora gehiago baizik". +www.guaixe.net

Elikagai Bankuaren ekarpen handia

Bere izena jakinarazi nahi izan ez duen enpresa arakildar batek 7.500 litro esne eman zitzaion pasaren astean Nafarroako Elikagaien Bankuari. Arduradunek esker ona azaldu dute, esnea gehien eskatzen dituzten produktuen artean dagoelako eta emandako esnea bertako ekoizle bati erosi diotelako.

Zorri azoka eguna

Gaur, 17:00etatik 21:00etara, Etxarri Aranzoko estalpean

Hileko aurreneko ostiralero moduan Zorri Azoka, azoka soziala izanen da gaur arratsaldean Etxarri Aranzoko estalpean. Handik pasatzen denak barazki ekologikoak, erakundearen informazioa zabaltzeko gunea, elkartasun gunea, bertako produktuak, truke gunea (19:00etatik 20:00etara), artisautza, artea, bigarren eskuko gauzak eta musika opatuko ditu.

Hilero moduan gonbidatu bat izanen da Zorri Azokan. Oraingoan artisau zapatar bat lanean ikusteko aukera izanen da. Antolatzaileek sakandarrak ipuin eta liburuak eramatera eta trukatzera gonbidatu dituzte. Gainera, azoka sozialeko produktuen zozketa izanen dela ere iragarri dute.

Sakandarrak Lau zango, milaka irri elkartasun jaialdian

Igandean, 18:00etan, Baraiaingoa auditorioan izanen dira

ANA eta Anfas erakundeek autismoa eta Down sindromea duten hainbat haurrei laguntzeko Animaliek Lagundutako Terapiari proiektua martxan jarri zuten. 2013ko martxotik Bokalan Biak Bateko kideek haurrekin harreman terapeutikoa izan dute, txakurrekin lagunduta. Baina elkarteek beharrezko finantziak ez zuten, proiektua bertan behera gelditu zen.

Etzirako antolatutako Lau zango, milaka irri elkartasun jaialdia esku hartze terapeutikoa aurrera eramateko diru biltzea da. Bocalan Biak Bat elkarteak antolatu du Irrien Lagunak-ekin batera. Hainbat parte-hartzaile izanen dira, tartean Nafarroako hainbat kirolari. Parte-hartzaileen zerrendan sakandarrak daude: Anabel Arraiza (Irrien Lagunak), Itziar Nazabal (margolaria), Pablo Urtaus (txirindularia), Garazi Misiego (Ardoi saskibaloitako taldeko jokalarialtsasuarra) eta Bocalan Biak Bat. Pentsatzekoa da ere publikoan sakandarrak izanen direla.




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Iosu Murgiondo Murgiondo
I. urteurrena

Gure aldetik joan zinen,
gurekin zaude,
beti jarraituko duzu gurekin.

Maite zaitugu

Etxekoak



Mari Carmen Alvarez
I. urteurrena

Esan ahal ditudan berba ederrenek
ezin dute azaldu niretzat zarena.
Dena alaitasun dena koloretsu,
hala ikusi duzu zuk beti bizitza.

Beti izango zaitugu gogoan!!

Etxekoak

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ/3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Ikastaroak

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonak. Tokiz aldatze, mobilizazioak eta lekualdaketa. Etorriko zaren adierazi, mesedez. Izen-ematea dohainik, deien hurrekeraren arabera. Tokia: Josefina Arregui klinika. Apirilaren 9an, arratsaldeko 17:30ean, 25 toki. Hots egin 948 56 38 50 telefonora goizez, Benar. Irakasleak: Eneka Lizarraga eta Itziar Iturrioz.

AES. "Oinarriko enpresa-ingelera", Arbizun, 70 ordu, apirila-ekaina; "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa: denbora eta kostuen murrizketa", Arbizun, 80 ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; "EXCEL 2010: informazioaren kalkulua eta kudeaketarako baliabideak", Altsasu, 40 ordu, apirila; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

UGT. Ofimatika: apirilaren 23tik ekainaren 26ra.

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Baratza baten bila nabil Lakuntzan. Uztearen truke baratzetik jasotako uztaren zati bat emanen dizut. Primeran zainduko dut lur eremua. Nire telefonoa 603 83 15 79 da.

Basomutur jatetxean. Hemendik aurrera, atsedan eguna astelehenetan izanen da.

Etxarriko galdeketerako boluntarioak. A13 ekimenak herri galdaketa egin ahal izateko boluntarioak behar ditu hurrengo batzordeetan aritzeko: mahai elektorala, informatika, segurtasuna, aurretiko boto sekretua, komunikazioa, begiraleak eta ekitaldeak. Interesatuak 620 37 83 38 telefonora hots egin edo 2014a13@gmail.com e-postara jo.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Informatika - trukea. Informazio gehiago zabaldek@inigoaritz.com

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure belexeguaix txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arropa, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozipina... Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin

harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, astearteetan Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunea jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

JAIOTZAK

- Iker Navarro Berjoyo martxoaren 19an Altsasun.
- Nayeli Saray Figueroa Palacios, martxoaren 22an Etxarri Aranatzeko.

- Saioa Jimenez Berastegi eta Fernando Mazkiaran Garziandia, martxoaren 29an Arbizun.
- Amine Ouassaid eta Yoursa Hamdi Hajji, martxoaren 29an Iruztunen.
- Iñaki Gonzalo Ganboa eta Amets Larraza Lopez, apirilaren 2an Etxarri Aranatzeko.

HERIOTZAK

- Ignacia Redin Iragi, martxoaren 23an Etxarrenean.
- Maria Rosa Larunbe Artola, martxoaren 30ean Izurdiagan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Ezgaiteuen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaiteuen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaiteuek aisia behar dute. Laguntzaileak izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaiteuen Elkartetik.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabil dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoko jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo itzulpenak@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

Kirola >>

Pilota

Xala-Zubieta 2010eko txapela berritzera?

Finalerdiko lehen jardunaldian lekuindarrak eta etxarriarrak 13 tantotan utzi zituzten Urrutikoetxea-Beroiz. Igandean Aimar eta Aretxabaleta dituzte zain.

Ikaragarria. Modu ikusgarrian aritu ziren Yves Xala eta Aitor Zubieta igandean Eibarren, Urrutikoetxearen eta Beroizen kontra. 2010ean txapeldunak izan ziren Xala eta Zubieta, eta orduan bezala jokatu zuten igandean. Urrutikoetxea eta Beroiz baino askoz gehiago izan ziren lapurtarra eta etxarriarra. Finalera sailkatzeko pausu inportantea egin dute Xalak eta Zubietak, baina finalerdietako ligaxka despeditzeko geratzen diren 2 partidetatik beste bat irabazi beharko dute horretarako.

Aimar-Aretxabaleta zain

Xalak eta Zubietak Aimar Olaizola eta Andoni Aretxabaleta dituz-

Zubieta: "Astetik atera gusturago nago"



Material aukeraketara joan baino lehen sentsazio onak dituela eta gustura dagoela aitortu ziren etxarriarrak. Aimar Olaizola eta Andoni Aretxabaletaren kontrako partida oso estua espero da, eta iritzi berekoa da Zubieta. "Partida gogorra izango da. Bi bikoak momentu onen gaudela. Guk Gasteizen irabazi genien, baina orain beste momentu batean gaudela, finalerdietan. Frontoi ezberdina, pilota ezberdinak... partida berria izango da. Eta oso gogorra. Badakigu beraiek irabazteko gai garela eta horretan saiatuko gara" esan digu Zubietak. Euren jokoa egiten saiatuko direla nabarmendu zuen etxarriarrak. "Beti jolasten dugun bezala aritzea, hori izango da gure taktika. Partida gogortzen saiatuko gara. Xala babesten saiatuko nahiz, bera kantxan lasai egoteko, bere airea. Betiko moduan aritzera aterako gara" nabarmendu du. Ea zortea ere alde duten eta finalerako sailkatzeko beste pausu bat ematen duten.

Binakako 2. finalerdia

**Irujo-Barriola / Urrutikoetxea-Beroiz (bihar Labriten. NITRO)
Olaizola II.a-Aretxabaleta / Lasa-Zubieta (igandean Atanon. ETB1)**

te hurrengo arerioak.

Puntako partida

Binakako hasierako ligaxkan, lehendabiziko partidaren lesionatuta zeuden Xala eta Zubieta, eta euren ordeztasun Lasa eta Cecilio aritu ziren. 22-19 irabazi zieten Olaizola eta Aretxabaletak. Aldiz, bigarren partidako lehia ikusgarrian, 22-20 gailendu ziren Xala eta Zubieta. Aurrekari horiekin, lehia estua espero da. Akaso katedrak Olaizola eta Aretxabaleta joko dituzte faborito, baina Xala eta Zubieta bere momentu onenean daude. Primeran ezagutzen dute elkar; txapeldunak izanak dira eta txapela janzteko gogoz daude. Igandean partida ikusgarria espero da. Beste lehian, Irujo-Barriolaren kontra ariko dira Urrutikoetxea-Beroiz.

22. Irurtzongo Pilota Txapelketa-Lacturale Saria ate joka

Izena ematea zabalik dago apirilaren 9ra arte

Irurtzun Pilota Klubak 22. Irurtzongo Pilota Txapelketa-Lacturale Saria antolatu du. Txapelketa Ostegun Santuan hasiko da, apirilaren 17an, eta Irurtzongo Trinitate festetan despedituko da, ekainaren 14an. Benjaminek hasita senior mailara arteko kategorietan jokatuko da txapelketa. Materialari dagokionez, benjaminek goxua erabiliko dute, kimuek eta haurrek mistoa eta kadeteek, jubenilek eta seniorrek tokea. Urtetik urtera garrantzi eta prestigio handiagoa du Irurtzongo txapelketak. Aurreko urtean 150 pilotari baino gehiago lehiatu ziren. Seniorretan Santxo eta Urruzola izan ziren garaileak.

IZENA EMATEKO

Apirilaren 9ra arte emandatekeizena, Irurtzun Pilota Klubean. Informaziorako: migueltxob@hotmail.com.

Duatloia

Amatriainen eta Gaztañagaren lezioa

IZARREZ BETETAKO ETA HAIZEAK GOGORTUTAKO ARBIZUKO 18. DUATLOIAN GAILENDU ZIREN BIAK. SAKANDARREN ARTEAN IGOR FLORES IZAN ZEN AZKARRENA

Sakandarrak Arbizuko 18. Duatloian

1.	Raul Amatriain	1:42:07
12.	Igor Flores	1:46:44
18.	Sergio Garcia de Eulate	1:49:10
19.	Fco. Javier Gomez	1:49:35
34.	Javier Borrega	1:52:09
82.	Juan Luis Maiza	1:57:29
98.	Isidro Asurabarrena	1:59:20
114.	Mikel Astiz	2:02:09
126.	Mikel Lakuntza	2:03:45
173.	Juantxo Azurmendi	2:11:50

Parte-hartze errekorra izan zuen Arbizuko 18. Duatloiak. 250 duatletek hartu zuten irteera, antolakuntzak duen muga, hain zuzen. "Eskera gehiago izan ditugu baina ezin izan ditugu onartu" adierazi ziren Arbizuko kirol zinegotzi Juantxu Zabalak. Egun berean ospatzekoa zen Durangoko duatloia bertan

Igor Flores sakandarren buru



Sakandarren artean Igor Flores izan zen azkarrena, helmugara 12. postuan heldu eta gero (1:46:44). Sergio Garcia de Eulate izan zen 2.a, helmugara 18.a iritsita (1:49:10) eta Francisco Javier "Pitxi" Gomez 3.a, helmugan 19.a sailkatuta (1:49:35). Lehen arbizuarraren saria Mikel Lakuntzak jaso zuen (2:03:45, 126.a.).

behera geratzeak zerikusia izan zuen, baina baita Arbizuko probak berak ere. "Proba gogorra eta poli-

ta da, are gehiago jotzen duen haizearekin" gehitu zuen Zabalak. Eta haizea izan zen, zalantzarik gabe, eguneko protagonista. Izugarri jo zuen eta bereziki txirrindularitza tartean, Lizarragako katea igo eta jaistean izan zuen eragina, proba asko gogortu baitzuen.

250 duatletek 5 km korrikari, 32 km txirrindularitza eta 2,5 km korrikari egin behar izan zituzten. Proba Nafarroako eta Euskal Herriko duatloi zirkuituetarako baliagarria zen. Espainiako distantzia luzeko txapelduna den Raul Amatriain zen proba irabazteko faborito nagusia eta nafarrak ez zuen hutsik egin. Baina konpetentzia oso gogorra izan zuen, proban egungo izar guztiak baitzeuden. Txapelduna azken tartean erabaki zen, txirrindulari probatik elkarrekin iri-



Garcia de Eulate, bigarren sakandarra. Argazki galeria: www.guaixe.net-en.

tsi baitziren faboritoak.

Azkeneko eremuan Amatriainek tartea aterazien gainontzekoei eta bakarrik heldu zen helmugara (1:42:07). 2.a bere taldekide Javier Migel Benedited izan zen (1:42:50) eta 3.a Patxi Urizar

(1:43:01). Emakumezkoetan Maider Gaztañaga lehena izan zen (1:55:01), Ana Casaresi 5 minutu pasa aterata (2:00:10). Lourdes Oiartzabal izan zen 3.a (2:03:48).

Proba bukatu eta gero sari ematea egin zen eta guztiendako auzate ederra prestatu zen Aldabide elkartearen. 80 boluntario inguru aritu ziren lanean egun osoan, goizean kategoriatxikikoen probak jokatu baitziren.

Goizean txikienak

Goizean 150 duatletek hartu zuen parte Arbizuko II. Haurren Duatloian, Nafarroako Herri Kirol Jokoetarako baliagarria zen proban. Aurrebenjaminek hasita haurren mailako kategoriatxikikoen probak jokatu baitziren.

UHARTE ARAKILGO UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA ETA JATETXEA ERRENTA EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua: Uharthe Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Uharthe Arakilgo udaletxean, 2014ko apirilaren 30eko 14:00ak baino lehen.

Uharthe Arakilen, 2014ko martxoaren 31n.

Javier Rodríguez Astiz,
Alkate Presidentea.

UHARTE ARAKILGO UDALA

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Txirrindularitza

Rural Kutxa-RGA
Espainiako Vueltara

Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentalak Espainiako Vueltan aritzeko gonbitea jaso du.

Rural Kutxa taldeko manager Juanma Hernandezek Unipublic-ek eurekin izandako "konfiantza" eskertu du eta nabarmendu du taldearen dako "oso inportantea dela" Vueltan parte hartzea. Azken bi urtetan Vueltan aritu da Rural Kutxa, eta managerrak "oso oroitzapen onak" dituztela gaineratu du. "Ahal dugun guztia lan egingo dugu Vueltan, gure taldeak duen potentzial guztia erakusteko" azpimarratu du Hernandezek. Rural Kutxak Vueltara eramango dituen txirrindularien artean egongo dira taldeko gizon inportanteenak: David Arroyo, Luis Leon Sanchez eta Amets Txurruka.



Arnau Soler Gorlako Igoeran.

Gorlako Igoera
Rural Kutxako
Solerrendako

Rural Kutxa-RGA taldeari denboraldiko 2. garaipena eman dio

Arnau Solerrek Rural Kutxa afizionatuen taldeari bigarren garaipena eman dio, igandean Gorlako Igoerako helmugara bakarrik heldu eta gero (2:25:35). Bestalde, Espainiako Koparako baliagarria zen Guerrita Trofeo Gipuzkoako Aritz Bagüések irabazi zuen. Rural Kutxako Migel Angel Benito 3.a izan zen, 3 segundora.

ERBITI GANTE WEVEIGEMEN

John Degenkolbek irabazitako proban Movistarreko Imanol Erbiti 41.a izan zen, 19 segundora.

Mendi txirrindularitza

Otxoa eta Irigoien
Argedasen txukun

Coloma nagusitu zen Rural Kutxa BTT Koparako baliagarria den proban

Igandean jokatu zen Argedaseko BTT lasterketa. Carlos Colomak erakustaldi bikaina eman zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:32:56), Mikel Otxoa izurdiarra 21. postuan iritsi zen helmugara (1:55:19), 23 urtez azpiko txapelketan 6. postuan. Uharte Arakilgo Mikel Irigoien 33.a izan zen (1:47:31), 23 urtez azpiko txapelketan 13. postuan.

Mendia

Goazen hiru mendizerrak lotzera!

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako mendi ibilbidea bihar, larunbatean, goizeko 7:00etan abiatuko da. Bi ibilbide egiteko aukera dago

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak biharko, larunbaterako, IV. Hiru Mendi Zerrak mendi ibilaldia prestatu du. Ibilbide luzeko ibilaldi ez lehiakorra da, Nafarroako eta Euskal Herriko mendi ibilbide luzeen zirkuituetan sartua dagoena. Larunbaterako udaberriko eguraldi nahasia iragarri dute, tenperatura arinekin, eta parte-hartze polita espero da. Aurretik 400 mendizale inguruk eman dute izena, baina antolakuntzak 750 mendizalere dako hornidura prestatu duenez, kopuru hori bete arte izena eman daiteke gaur arratsaldean eta bihar goizean Gure Etxean.

Ibilbideak Altsasu inguruko bazter eder eta anitzak ezagutzeko parada eskaintzen du: Urbasa-ko malkorrak, Bargagain, Altzaniako pagadiak, Balankaleku, Aralarko trikuharriak eta Sarabe eta San Pedroko paisaia lasaigarriak.

Hornidura ederra

Ibilbide guztia ongi markatuta egonen da. 5 kontrol eta jaki eta edari hornidura gune izango dira: Gure Etxean, Urbanan, Ziordia herrian, Sorozarretan eta Saraben. Horretaz gain, ur hornidura egon-

Bi ibilbide (48 km eta 26 km)



Mendizaleek bi ibilbideren artean hautatzeko aukera izanen dute: ibilbide handia, 48 km-koa eta 2.725 metrotako desnibel metatua duena; eta ibilbide txikia, 26 kilometrokoa eta 1.200 metrotako desnibeletakoa. Ibilbide laburrak gutxi gora behera 7-8 orduko lana eskatzen du eta martxa handiaren estimazioa 11 orduko gorakoa da. Bi ibilbideak Altsasuko Gure Etxean hasiko dira, 7:00etan. Mendizale guztiak Urdaierara joko dute. Urdaieratik Urbasa-Andiara igoko dira, Portuazpitik, eta aipatu parke naturala zeharkatuko dute, Bargagain eta Gainsolera helduz. Bertatik Ziordia herriraino jaitsiko dira. Ibilbide motza aukeratzen dutenak partzelarietatik barna Altsasura ailegatuko dira, eta, aldi, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipular igoko dute, gero Orobeko antzinako harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarreta jaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxusburu igoko dituzte. Handik jaitsiko dira, Sarabetik, eta San Pedrotik eta Basoititik barna Altsasuko Gure Etxera helduko dira.

go da beste hainbat tokitan. Zer jan eta zer edan ez da faltako; famatuak egin dira antolatzaileek eskaintutako hamaiketakoak. Ibilbide hauek ez dira lehiatzekoak, eta hortaz, antolakuntzak ez du sailkapen ofizialik banatuko,

baina mendizaleek nahi izanez gero kontroletan hartutako denbora erreferentziak jasotzeko aukera izango dute.

Guztia prestatzeko klubeko kideak eta boluntarioak ariko dira lanean, 50 pertsona inguru.

Oraindik izena eman
daiteke

Izena aurretik emateko epea martxoaren 31n despeditu zen, baina antolakuntzak prestatutako 750 tokiak bete ez direnez, oraindik izena eman daiteke kopuru horretaraino iritsi arte. Gaur, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara eta bihar, probaren egunean bertan, goizeko 6:00etatik aurrera eman ahalko da izena, Gure Etxean. Prezioa: 15 euro.

Bargagainera
ikastolekin

Sakanako ikastolen mendi taldeak txangoa antolatu du igandean Altsasuko Bargagainera. Hitzordua goizeko 9:30ean jarri dute Etxarriko Andra Mari ikastolan. Zehazki, Urbasa-ko interpretazio gunetik abiatuko dira Bargagainera, eta 8 km-ko ibilbidea izango da. Eguraldi ona eginez gero, norberak bere bazkaria eraman dezake Urbanan bazkaltzen gelditzeko. Edonork eman dezake izena. Hori bai, gurasoek edo haiek zehaztutako norbaitek izango dute norberaren seme alaben ardura.

Herri kirolak

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoak Altsasura

Altsasuko Iortia Kultur Guneko aurrealdeak txapelketako 4. jardunaldia hartuko du igandean, 11:00etan

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoetako 3. jardunaldia jokatu zen Elizondon. Sakanatik Iñigo Aritzta eta Andra Mari ikastoleatik sortutako taldeak ari dira lehiatzen, kategoria ezberdinetan. Haiekin batera Ultzama, Basaburua, Berriozar, Baztan, Araxes eta Irisarri.

Proba konbinatua

Proba konbinatuan, kimuen mailan Iñigo Aritzta B izan zen azkarrena (6:53), Andra Mari (6:56) eta Iñigo Aritzta A taldeen aurretik

(7:00). Haurren mailan Basaburua izan zen azkarrena (8:38), Andra Mariren aurretik (8:42). Iñigo Aritzta 4.a izan zen (9:51) eta Putterri 5.a (10:28). Eta kadete mailan Basaburua izan zen azkarrena (10:16). Andra Mari 3.a izan zen (11:41).

Sokatira

Haurren mailan (480 kg) Iñigo Aritzta gailendu zen (5 puntu), Andra Mariren aurretik (4 puntu). Eta kadeteetan Ultzamak eta Andra Marik berdindu zuten (2,5 puntu).

Igandean Altsasun

Altsasun hartuko du Nafarroako



Iñigo Aritzta ikastolako talde bat, Etxarriko jardunaldia jokatu zenean.

Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia. Igandean jokatu da, 11:00etan, Iortia Kultur Gunearen aurrealdeko

plazan. Eguraldi txarra egiten badu Burunda pilotalekuan jokatu da proba.

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

Ereiteko patata eta pelleta salgai

GANUZA
SUKALDEAK

Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

xapatero
taberna

948 460 162
Etxarri-Aranatz

Mendi lasterketak



Jose Luis Beraza mendian gora.

Beraza ongi Orion

Uhartearra 12.a izan zen IV. Orioko mendi lasterketan

Sakandarrak IV. Orioko mendi lasterketan

1.	Dabid Garcia	2:03:11
12.	Jose Luis Beraza	2:15:20
20.	Gorka Santesteban	2:19:57
39.	Carlos Gerendiain	2:26:44
48.	Aritz Ganboa	2:28:18
70.	Jorge Azanza	2:35:22
118.	Andoni Azanza	2:46:02
171.	Iñaki Lacalle	2:56:56
204.	Maite Beregaña	3:01:58
211.	Mikel Satrustegi	3:03:11

Igandean mendi lasterketa ugari izan dira Euskal Herrian eta korrikalari sakandarrak lanean ikusi ditugu. IV. Orioko mendi lasterketan (20 km) Dabid Garcia durangarra izan zen helmugara iritsi ziren 351 korrikalarien artean azkarrena. Jose Luis Beraza uhartearrak lan bikaina egin zuen eta 12.a sailkatu zen (2:15:20).



Munarriz, bigarrena, Sarako Trailean.

Aritz Munarriz 21.a Sara Korrika Trailean

Igandean Sara Korrika Trail mendi lasterketa ezagunaren IX. edizioa jokatu zen (25 km). 549 mendi korrikalari iritsi ziren helmugara, Oier Ariznabarreta buru zela (1:53:39). Aritz Munarriz etxarriarra 21.a izan zen (2:17:37). Beñat Katarain lakuntzarrak ere lan polita egin zuen eta 29. postuan iritsi zen helmugara (2:22:19). Adur Maiza 56.a sartu zen helmugara (2:30:01) eta Iraitz Senar 133.a (2:45:40).

Atletismoa

Sakandarrak Berdebidean

377 korrikalari osatu zuten igandean Donostian jokatuako III. Berdebidea proba (6,6 km). Aitor Etxeberria izan zen txapelduna (20:47). Sakandarrei dagokienez, Juan Carlos Perez 45.a izan zen (25:28), Maite Zabaleta 108.a (29:40) eta Jose Javier Maiza 109.a (29:40).

Futbola

Helduak futbolera!

HELDUEN I.GO SAKANAKO FUTBOL 7 TXAPELKETA-IKER KIROLAK SARIA ANTOLATU DU MANK-EK. APRIBILAREN 11RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Helduen I.go Sakanako Futbol 7 Txapelketa-Iker Kirolak Saria antolatu du. Txapelketa Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian jokatu dela aurreikusten da, igande goizean, maiatzaren hasieratik aurrera. Izena ematen duten taldeen arabera zehaztuko da talde bakoitzak ordaindu beharko duen kuota eta txapelketak izango duen iraupena.

Mank-eko Amaia Gerrikagotia teknikariak azaldu digunez, eskariak egon direlako antolatu dute Helduen Futbol 7 Txapelketa. "Helduendako futbol txapelketa antolatzeko eskaerak egon dira eta haiei erantzuna emateko antolatu dugu Helduen I.go



Dantzaleku futbol zelaian jokatuako partida bat.

Sakanako Futbol 7 Txapelketa. Areto futbol txapelketaren eskaera beteta dago Futsal Sakana txapelketarekin, eta horregatik futbolaren eskariari erantzuna eman nahi izan diogu" esan digu teknikariak.

Areto futbola

10 taldeek nahi dute Futsalsakana.es kopa

TXAPELKETA LARUNBATEAN HASIKO DA, UHARTE ARAKILGO FRONTOIAN



Arbizuk irabazi zuen Futsalsakana areto futbol txapelketa. Hura bukatuta, asteburu honetan Futsalsakana.es Kopa jarriko da martxan. Txapelketan lehiatutako 7 taldeez gain beste 3 taldek eman dute izena eta guztira 10 lehiatuko dira.

10 taldeak bi multzotan banatu

dira. Multzo bakoitzaren barruan ligaxka jokatu da. Multzo bakoitzeko bi talde onenak finalerdiak irabaziko dira. Finalerdiak partida bakarrera jokatu dira, maiatzaren 16an, eta txapeldunak maiatzaren 24an jokatu den final handirako sailkatuko dira.



Magnak barkatu zuen

SANTIAGO FUTSALEK 4-3 IRABAZI ZION MAGNARI



Magna Nafarroa Xotak lagunarteko partida izan zuen asteazkenean Noainen, Migel Morenoren Japoniako selekzioaren kontra. Partida estu eta entrenigarrian, 1-0 gailendu ziren Imanol Arregiren mutilak.

Magna eta Santiago Futsal parez pare aritu ziren eta partida lehiatua eskaini zuten. Jesulitok mus-

tu zuen markagailua, baina 5 minutu berdindu zuen Santiagok. Bigarren zatian defentsa akats bati

Izena emateko

Apribilaren 11ra arte, Sakanako Mankomunitatean (948 464 866 telefonoan, 9:00etatik 15:00etara edokirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa).

Taldeak

A multzoa: Racing San Migel (Uhart Arakil), Etxarriko gaztetxie (Etxarri Aranatz), Iturmendi, Leones del Atlas (Uhart Arakil) eta Arbizuko jubenilak.

B multzoa: Arbizu K.T., Auzomotojorik (Etxarri Aranatz), Biltoki (Altsasu), Bunker (Altsasu) eta Aralar Mendi 69 (Uhart Arakil).

Lehen jardunaldia

- Bihar, Uhart Arakilen**
14:00etan: Racing - Etxarriko gaztetxie
- 15:00etan: Iturmendi - Leones del Atlas
- 16:00etan: Arbizu - Auzomotojorik
- 17:00etan: Biltoki - Bunker

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

32. JARDUNALDIA

ERRI BERRI 2 - LAGUN ARTEA 2
Beheko postuetan dauden bi taldeen arteko lehia izan zen, urduritasun handiko lehia. Lehen zatian Arkaitzek Lagun Artea aurreratu zuen baina Erri Berrik berdintzea lortu zuen. 2. zatian Laguneko Goikok jaurtitako penaltia gelditu zuen Erri Berriko atezainak. Arkaitzek atzera ere 2-1 aurreratu zuen Lakuntzako taldea, baina lehia bukatzean zegoenean Erri Berrik bina berdindu zuen. Lortutako puntuari esker sailkapenean igo da Lagun Artea, baina jaitsiera postuak 3 puntutara ditu.

Sailkapena >>

1.	San Juan	72 p
14.	Lagun Artea	33 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - BURLADES

(Igandean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

26. JARDUNALDIA

ALTSASU 2 - ETXARRI ARANATZ 0
ARROTXAPEA 3 - LAGUN ARTEA B 1
Altsasuren eta Etxarri Aranatzaren arteko derby mugitua izan zen oso. Lehen zatia nahiko gatz gabea izan zen, apenas jokaldi aipagarriekin. Atsedendira husnako berdinketarekin iritsi ziren. 2. zatian Altsasuko jokalaria bat kaleratu zuen arbitroak. Ondoren, Darlingek egindako pase bikain bat sare barrura bidali zuen Amiamak, Altsasu aurreratu. Handik berehala gertatutako jokaldi baten ondoren, arbitroak Altsasuko beste jokalaria bat eta Etxarriko bi aldagelatar bidali zituen. 9 jokalarirekin gelditu ziren bi taldeak. Etxarrik baloi bat galdu zuen atzean eta Altsasuko Barrenak bigarren gola sartu zuen. Eta horrela despiditu zen partida nahasia.

Bestalde, Arrotxapeak 3-1 irabazi zion Lagun Artea B taldari.

Sailkapena >>

1.	Lekunberriko Beti Kozkor	57 p
5.	Lagun Artea B	42 p
9.	Altsasu	37 p
15.	Etxarri Aranatz	23 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA B - UNIVERSIDAD DE NAV.

(Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)

AMAYA - ALTSASU

(Larunbatean, 16:00etan, Iruñean)

ETXARRI ARANATZ - BETI ONAK B

(Larunbatean, 16:00etan, Etxarri)

Futbola



SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK

17. jardunaldia jokoan

Igandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 17. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.

17. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

- 11:30ean: Urdiain - Etxarri Aranatz
- 11:30ean: Dantzaleku - Lagun Artea
- 12:30ean: Tipi Tapa - Txartel
- 12:30ean: Kaixo - Sayas
- Atsedean: Arbizu Kirol Taldea

SALEGIREN FILMA NAFARROAKO

FILMOTEKAN: Heldu den ostegunean, 20:00etan, Joseba Salegi zuzendari altsasuarren opera prima ikusteko aukera izanen da: Ione sube al cielo (1999). Emanaldia

Filmotekak sortzaile nafarrei apirilean eskainitako zikloaren barruan kokatzen da.

kultura >>

Los del Rayo, dosi txikitan

23 urteren ondoren talde altsasuarrek diskoa argitaratu du

Rockeroak gara eta azalera argazki egokiena hori iruditzen zitzaigun, gitarrabat eta hurajotzen duen eskua". Alonsok (bateria) esandakoaren arabera, Los del Rayokoek diskoaren azaletik garbi utzi nahi izan dute haiena rocka dela. Taldeari izena eman zion Pablo el Rayori eskaini diote diskoa, baita kantetako bat, *Maldita soledad*.

Gggrrroocanrrolll en dosis txikitas izenburua du diskoak. Dozena erdi kantu bildu dituzte. Lan berrian bi keinu egin dizkiote duela 25 urte atera zuten lehen make-tari. Izenburuaren lehen zatia da bata: "Musika kañeroa da egiten dakiguna. Taldea denaren esentzia mantendu nahi genuen," esan digu Leok (gitarra). Beste keina diskoazabaltzen duen *El rey de la autopista* kantua da: "aurreko bi diskoetan sartu ezzen kantua da. Egiten dugunarekin lotura duelako".

Taldea egituratuz

Bi urte eta erdi pasa dira entseatzera hasiera erabaki zutela. Handik emanaldi batzuk sortu ziren eta haietan hainbat kantarik parte hartu zuten. Aurrera egitea erabaki zuten eta Juankar kantari hartzea erabaki zuten, "orain izan nahi dugunaren gertuen dagoelako". Peio gitarrak jolea ere sartu da. Diskoko koroak kantatu zituen. Zuzenekoetan koroak eta gitarrak jotzea proposatu zioten. Hala, Los del Rayo taldea laukote izatetik boskote izatera pasa da: "pena lehenago ez sartzea".

Entsegu batzuen ondoren taldekideek Leori zerbait berria egitea proposatu zioten, "bera baita gehienetan konposatzen duena. Hasieran iheskor aritu zen. Kontzertu genuen eta ekin zion. Sei grabatu ditugu baina beste horren beste edo gehiago ditugu grabatzeko" esan digu Alonsok. Leok argitu duenez, bera ideiarekin doa lokalera eta han osatzen dute. Josek (baxua) atzetik: "sortzea ez zaigu asko kostatzen. Nik badakit



Eskuratzeko

Diskoaren 500 ale atera dituzte. Altsasuko Lurrazpi, Gernika eta Lurrazpi tabernetan dago salgai diskoa. Gor diskoetxeak banatuko du diskoa. Facebook bidez ere haiekin harremanetan jartzeko aukera dago. Edo zuzenekoetan. Apirilaren 12an Aguraingo Herriko tabernan ariko dira eta 26an Errotxapeako Zokoa tabernan. Eta beste data batzuk ixteko dituzte, tartean Altsasuko bat.

Alonsok nola jotzen duen bateria. Nik berehala segitzen diot eta Leok duen ideiarekin lotzen dugu.

Audioa, argazkia eta bideoa

Altsasuko Estudios Del Reinon grabatu zuten diskoa, ilbeltzean, Ricardo Aretarekin. Nahasketak, berriz, Alberto Porresen Iruñeko Estudios K-n egin dituzte. Kolaboratzaileen artean El Drogas (ahotsa), Ritxi (pandereta) eta Sebas eta Cata (gitarrak) daude. Txefo Mendezek egin zuen taldearen aurreko diskoak azala. Orain azala eta liburuxka diseinatu ditu. Horretaz aparte, argaz-

Erraz sortzen dugu". Alonsoren iritzi taldearen muina gitarroa da, "berezia". Urteetako adiskide-

ki erakusketa ere egin du. Egun Aguraingo Herriko tabernan ikusgai dago eta aurki Errotxapeako Zokoa tabernara pasako da. Asteartean hasi ziren *Noches de bares* kantaren bideo kliparen grabazioarekin. Ikus-entzunezkoak ikasten ari diren batzuekin ari dira, eta haien artean Oier Albiztur altsasuarra dago. Aguraingo kontzertuan bideoarako irudiak hartuko dituzte. Bideo klipaz aparte Los del Rayori buruzko dokumentala egiteko asmoa dute, taldearen historia jasoz.

tasunak ere sorkuntzan laguntzen duela nabarmendu dute. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Dantza, dantzari

Domekan, 11:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko Musika eta Dantza eskolak antolatuta, XIII. auresku eta soinu zahar txapelketa jokatuko da etzi. Gipuzkoako Euskal Dantzen Biltzarrek urtero antolatzen duen auresku eta soinu zahar ligaxkaren barruan dago domekako txapelketa. Mutilek eta B1 mailako neskek parte hartuko dute. Haien artean daude Elai Gomez (Etxarri Ara-

natz), Izaro Agirre (Altsasu), Amets Maiza (Altsasu) eta Xabier Bengoetxea (Ziordia).

Orain arteko parte hartzeari dagokionez, Elgoibarren jokatu zen kanporaketan Gomez 5. izan zen eta Agirre 6. izan zen. Maiza, berriz, Legazpin 3. izan zen. Hirurak asteburuan Oiartzunen eta Altsasun neurtuko dira. Bengoetxea, berriz, Legazpin 4. eta Elgoibarren 3. izan zen. Aipatzekoa da mutiletan maila bakarra dagoenez, ez dabilela dagokion mailan

Txapelketa

Ligaxkan Gipuzkoako eta Sakanako 120 dantzari inguru ari dira parte hartzen. Adinagatik neskek hiru mailatan aritzen dira: A saila (7 eta 11 urte), B1 saila (12 eta 13 urte) eta B2 (14 eta 15 urte). Mutilak, berriz, maila bakarrean ari dira neurtzen. Dantzari bakoitzak hiru kanporaketetan parte hartzen du. Sail bakoitzeko 15 onenak maiztea finaletan ariko dira.

parte hartzen. Bere 10 urteekin bera baino handiagoak diren dantzariekin neurtzen ari da.



Gehiago

Beste kanporaketa batzuetan, B2 mailan, Irune Lizarraga eta Naroa Otxoa etxarriarrek ere parte hartu dute. Azken hau, A mailan,

Lezon bigarrena izan zen eta Beasainen eta Billabonan txapelduna. Irune, berriz, Billabonan 13. izan zen, Beasainen 11. eta 6. Elgoibarren.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Altsasuko kintak, gonbitetik
protagonismora
eta Altsasu Memoria taldea

Esataria: Alfredo

Tarima Beltza azken muntaiarekin Olaztin



Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean

Tarima Beltza osatzen duen seikoteak euren azken muntai, *Nunca fuimos héroes* antzezlanaren eramanen du gaur Olatzagutira. Xabier Mendigurenen *La noche de los héroes* obran oinarrituta sortutako "tragikomedia soziala" da. Bi familien istorioak opatuko ditu ikusleak eszenatikian.

Gaztetako bi lagun harremaneko une bat ikusiko da taula gainean. Joseba (Juan Manuel Herrero) gaztetan politikan burubelarri sartua zegoen, gaur egun langile soila da, ilusioak galduta, zapuztua sentitzen da. Bestea, Xabier (Josu Castillo) da. Enpresan gora egin du. Lanean gustura dago, baina emaztearekin tira-

birak ditu eta nahiko bakarrik sentitzen da.

Josebaren emaztea Mila (Mertxe Herrera) da. Ospitalean lan egiten du. Egokitua. Goxoa da baina zapuztua dago senarrarekin beti tira-biratan dabilelako. Arantxa (Marta Diego) da Xabierren emaztea. Eroskiko kutxazaina da, baina gehiago behar duela sentitzen du. Bizitzan zerbait lortu duela erakusteko dirua eta gauzak lortu dituela erakutsi beharra du. Oso bakarrik sentitzen da. Bere alaba Irati (Natalia Martin) da, gizarte honen kontra dagoen gaztea. Gizarte honen kontra egoteaz aparte, amak ez duela ulertzen uste du. Bera ere bakarrik sentitzen da. Azkenik, Sasha (Amaia Mintegi) zerbizari errusiarra dago, Arantxak etxeko lanak egiteko kontratatu duena.

Irakurketa gure bizitzan

Izenburu hori duen erakusketarako argazkiak eskatu dituzte

Liburu eguna apirilaren 23an ospatuko da. Hori dela eta, Altsasuko Herri Liburutegiak erabiltzaileak argazki erakusketaren batean parte hartzerantz gonbidatu ditu. *Irakurketa gure bizitzan*. Horixe izanen da erakusketaren gaia eta horrekin lotutako argazkiak egitera eta bidaltzerantz animatu dituzte erabiltzaileak. Irakurketarekin lotutako argazkiak liburutegian aurkeztu daitezke edo biblials@cfnavarra.es e-postara bidali daitezke, nahi beste. Apirilaren 15era arteko epea dago.

Artiedak ekoiztutako filma gaur mustuko da estatuan

Una noche filma estatuko zazpi zinemetan emanen dute



Maite Artieda Barroso zinema ekoizle etxarriarrak New Yorkeko Lucy Mulloy zinemagilearen *Una noche* filmarekin zuzendariaren filmarekin ekoizpenean parte hartu zuen. Gaurtik aurrera Iruñea (Golem-Yamaguchi), Bartzelona, Madril, Logroño, Sevilla, Bilbo eta Kanariar Uharteetan ikus daiteke.

Filmak Elioren eta Raulen istorioa kontatzen du. Biek amets bera dute: 90 miliara dagoen askatasuna. Raulek Eliori laguntza eskatuko dio Miamiara ihes egiteko. Dokumental baten antza, filmak familiek Kuban bizi duten egoera islatzen du. Zinta 2012ko Berlinale jaialdian mustu zuten. Tribeca, Fort Lauderdale, India, Deauville, Brasilia, Atenas, Estocolmo eta Oaxacako jaialdietan 11 sari eskuratu ditu. Alemanian, Frantzia eta AEBn ere mustu dute filma.

bazterretik


Jose Luis Asensio

BONE

Aspaldidanik ez dut nerabeei zuzenduriko komikirik irakurri, ez berririk behintzat. Honekin esan nahi dudana zera da, nerabe nintzela irakurritako komiki askotan berrirakurri ditudala, baina ez niretzat ezezagunak diren nerabeei zuzendutako komikiak. Hala ere, mota honetako komiki berri bat irakurri behar izan dut Iruñean dugun komiki tertulian eztabaidatzeko, eta tertulian askotan gertatzen zaidan bezala, sorpresa pozgarria izan da komikia eza-gutzea.

Komikiak *BONE* du izena, eta formatu ezberdinetan argitaratu izan da. Jatorrian, Estatu Batuetan argitaratua da, hortaz, hango formatu izan zuten, orrialde gutxi aldizkari modukoa, baina izandako arrakastak beste formatu zainduagoak erabiltzerantz animatu zuten egilea. 10 azal gogorreko liburukatan banatua edo ale bakarrek luxu liburu bezala ere (1000 orrialde baino gehiago) aurki daiteke. Egileak, Jeff Smith, bere proiektu pertsonala aurrera eramateko argitaletxe bat sortu zuen: Cartoon Books. Bertan argitaratu zuen *BONE*, lasaitasunez eta presiorik gabe. Zenbakiak sortzen zituen heinean argitaratzen zituen, argitaletxeek jarritako daten presiorik gabe, eta nahiz eta aldizkakotasun finkorik ez izan, abenturak aurrera egin zuten gutxi gutxi, 1995-2004 urteen artean, Eisner eta Harvey sari pilo irabazten zituen heinean. Berez txuri beltzean marraztu arren, 2005. urtean kolorezko edizioa eresortu eta argitaratzen hasi ziren.

BONE argitaratu ondoren, Jeffek, beste zenbait gauza ere argitaratu ditu. Beharbada ezagunena eta gure eskuetara iritsi dena, *RASL* izeneko komikia da, gaia nahiko ezberdina duelarik. *BONE* komikiaren edukiak berez ez du inolako originaltasunik, askotan ikusitako abentura komikia da. "Eraztunen Jauna" liburuen ildo jarraituz, pertsonai bitxi batzuen abenturak deskribatzen ditu. *BONE*



izeneko izakiak dira pertsonai bitxi hauek, eta nahi gabe, bere mundua alde batera utzita, pertsonak, munstroak, dragoiak eta izpirituak dauden mundu batean murgiltzen dira. Komiki guztietan zehar, beren etxerako bide deskribatzen da. Fantasiakoroad movie honetan, lagun berriak eginez abentura ikaragarriak bizi dituzte, beti humorez zipriztindurik.

Komikia bi gauza direla eta gomendatuko nuke. Batetik, pertsonaia ezberdinek duten pertsonalitateak sortzen dituen umorezko egoerak ederrak iruditzen zaizkidalako, umore fina benetan, hala nola, munstro eta protagonisten artean. Bestetik, nahiz eta marrazkigileak argi erakutsi paisai eta pertsonai eder eta konplexuak marraz ditzakeela, xinpletasunarekin ere adierazkor-tasun ikaragarria lortu dezake, eta horri, maisulana deritzot. Laburbilduz, duen xinpletasunak eta umoreak bilduegiten zaitu, ipuina nola bukatzen den jakin nahi duzula, nahiz eta bidean zenbait ataletan zati ahulak ere aurki ditzakegun.



Egin zaitez bazkide
www.guaixe.net

Fisioterapia Senco
Javier Beloki
Fisioterapeuta · Osteopata

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Estrukurala · Biszerala
- Minen errehabilitazioa

655 708 916
Burundabidea 3-1B · Etxarri Aranatz
sendofisioterapia@gmail.com

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izan leat du
Txistor ekologikoa

Uztarabarra industria - RIF. - Faxa: 948 460 499

Giza harremanen barnako bidaiaria

Bihar, 19:30ean eta 22:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko antzerki tailerrak sortu duen *Altos vuelos* antzezlanak mustuko du bihar.

Birjuñe Albiraren zuzendaritzapean 11 aktore ariko dira. Bidaia agentzia batek Erroma eta Veneziarako bidaia antolatuta eta hartan izena eman duten guztiak emakumeak dira. Denak ere oso ezberdinak dira eta bidaiarako arrazoien baten jabe da bakoitza. Giza harremanen mosaiko bat. Antzerki bidaia izatera ezberdinak, gorabehera pertsonalak, amodio galduak eta beste agertuko dira. Eta horretarako bidea izanen da barra, irria edota malkoak.

Lastailarekin batera hasi ziren antzerki tailerrean, asteartero, 20:00etatik 22:00etara. Hainbeste aktoreendako idatzitako antzezlan koralk opatzea zaila denez eta tailerraren helburua antzerki teknikak ikastea denez, aktore bakoitzak bere pertsonaia eta haren mundua sortu, landu eta sakontzen du. Abiapuntua aurreko ikasturte akaberan sortutako ideia bat izan da. Nork bere unibertsoa ondu ondoren, Albirak guztiak batu eta paperera eraman zituen. Horrela sortu zen *Altos vuelos* antzezlanak.

Eszenatokia espazioak argi jokoekin sortuko dituzte. Hala ere, bi altzariren laguntza ere izanen dute espazio jakin batzuk sortzeko. Gogoz lan egiten ari dira.



Alvaro
(Iñaki Lopez).
Mutil koldarra.

Josefa
(Marisol Lizarraga).
Ziurtasun gabeko
emakumea.

Carmen
(Amelia
Lapuente).
Emakume
zorrotza.

**Isabella
Rosellini**
(Juli Alvaro).
Edertasunaren
isla.

Susana (Nahikari
Gonzalez). Haserre bizi
den emakumea.

Delia
(Olivi
Galpasoro).
Bidaia
honetako
gidaria.

Monica
(Klaudia
Caballero).
Bidaiaren
beste gidaria.

Raimunda
(Patru Aracama).
Teknologiaz betetako
munduan bizi dena.

Dorleta (Erkuden
Palacios). Txakurrak asko
maite dituen neska.

Lola (Elena Aldasoro).
Amona modernoa.

Cayetana
(Natalia Martin).
Biloba
geldiezina.

Dozena erdi idazkera Andra Mari ikastolan

Martxoan barna sei idazleren bisita jaso dute ikasleek

Aurreko urtean bezala, arte proiektua garatuko du Andra Mari ikastolak. Ikasturte honetan ikasleek Sakanako idazle baten obra abiapuntu izanda euren artelan propioak sortu beharko dituzte. Haiek garagarrilean Etxarri Aranazko kultur etxe-

an ikusgai izanen dira. Sormen lan horiek egin ahal izateko ikasleak idazleekin elkartu dira Victoria-no Huizi udal liburutegian.

Sei idazleren bisita jaso dute Andra Mari ikasleek; haietako bost sakandarrak dira. Zikloa Juanjo Olasagarrek zabaldu zuen martxoaren 6an. DBH 1eko ikasleek aurretik bere Capone txakurrak bere jabea hil zenean esan-

dakoa poema irakurri zuten eta galdera sorta handiarekin joan ziren topaketara. Egun berean, LH 2ko ikasleak Castillo Suarez idazlearekin elkartu ziren. Haren *Erikarentilikak*, *Ebelina Mandarina*, *Muxurik nahi?...* liburuetako hainbat pasarte ere irakurri zizkien Castillok. Aldez aurretik gelan *Amalia eta Amelia* landu zuten ikasleek eta ipuinari buruz hitz egin zuten, zalantzak argitu zituzten.

Iker Uribe lakuntzarra martxoaren 11n 5 urteko umeekin izan zen. Berak sortutako *Txirringa magikoa* liburua aurkeztu eta ikasleek galderak erantzun zituen, eta liburuko irudiak proiektatu zizkien. Martxoaren 17an Zoila Berastegiren txanda izan zen. Arbizuerra LH 3ko ikasleekin berak idatzitako *Pluton: Hor konpon Marianton* antzerki-gidoiaz hitz egin zuten, eta primeran pasazuten. Jon Arretxe arbizuerra DBH 4ko ikasleekin *Ostegunak* eleberriaz aritu zen hizketan.

Ixteko

Pasa den asteazkenean Toti Martinez de Lezea idazlearen bisitak

itxi zuen zikloa. Hiru topaketa egin zuen idazleak. Lehenik 5 urteko umeekin *Bazen behin...* bildumako ipuinetako batzuk kontatu zizkien. Ondoren, LH 3ko ikasleekin *Nurren abenturen* inguruan aritu ziren hizketan.

Azkenik, Martinez de Lezeak hitzaldi irekia eman zuen kultur etxean. Gela txiki utzi zuen Euskal Herriko historiaren eta gure lurraren memoriaren inguruan esan behar zituenak entzuteko joandako jendeak.



Literatura eta artea uztartuz

Apirilaren 7tik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Astehenean, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean Burundako ikastoletako ikasleek literaturatik abiatuta sortutako erakusketa ikusgai izanen da.

Iñigo Aritza eta Txioika ikastoletako ikasleek literatura eta artea lotzen dituen proiektu batean parte hartu dute. Herriko bi idazle,

Alberto Barandiaran eta Castillo Suarez, bisitan izan dituzte ikastolan. Haien liburuen berri eman ondoren, ikasleek euren iragazkitik pasa eta artelan bihurtu dituzte. Lan horiek dira *Literatura eta artea uztartuz* erakusketa ikusgai izanen direnak.

Bigarren urtea da ikastolek proiektu hori lantzen dutena. Aurreko urtean ikasleak eskulturgileen obrak izan zituzten abiapuntutzat.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Sakanako

Bilaldi Handia

**IRURTZUN
2014KO APIRILAREN 26a**

IBILBIDE LUzea IRTEERA: 06:30
IBILBIDE MOTZA IRTEERA: 07:30
LUzea: 52,5 km. 3100m igoera
MOTZA: 24,4 km. 1400m igoera

Izen ematea:
webgunean, apirilaren Tetik 23ra
www.iratxoelkartea.com
emaila: iratxomendi@gmail.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 67%	euria: 38%	euria: 35%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 40%	euria: 52%
Min: 7 Max: 12	Min: 6 Max: 16	Min: 9 Max: 18	Min: 9 Max: 22	Min: 10 Max: 19	Min: 8 Max: 14	Min: 7 Max: 14

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	18.2	0.7	5.7
Altsasu	18	1	2.7
Aralar	10.5	-2.5	4.5
Urbasa	15	0	5.5

: ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	7	15	22	29

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
2. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
3. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
4. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera

>> 11 galdera

Xabier Goikoetxea

Meteoclimatic-i buruz

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

1. Nola hasi zinen eguraldiaren datuak meteoclimatic web gunean jartzen?

Betidanik interesatu izan zait zer temperatura egiten duen edo haizearen indarra eta norabidea jarraitzea. Horri buruz ikertzen hasi nintzen eta ikusi nuen meteorologia estazio erdi profesionalak zeudela; ez diragama altukoak. Prezioa begiratu nuen eta jartzera animatu nintzen. Bigarren zatia estazioa Internetera konektatzea zen. Hori izan zen zailena, denbora asko kostatu zitzaidan dena konfiguratzea datuak automatikoki Internet bidez bidaltzeko.

2. Nola ezagutu zenuen meteoclimatic?

Duela 4 urte inguru, Interneten eguraldiari buruz ikertzen ari nintzela. Izan ere, meteoclimatic-era bidaltzen ditut datuak, baita Austriako web gune batera ere. Bi horiek ikusi nituen eta nire datuak bidaltzen hasi nintzen.

3. Zer ezaugarri bete behar dira datuak meteoclimatic-en sartzeko?

Datuak bidali ditzakezu, baina gero haiek ikusi behar dute datu horiek fidagarriak diren. Temperatura hartzeko garrantzitsua da sentsorea isolatuta egotea eguzkiak zuzenean ez ematea; kontuan hartzen dute estazioa nola jartzen duzun, lekua irekia izatea, ondoan etxeak edo tximiniak ez egotea eta gero euskarria gogorra den haizeak ez mugitzeko. Gerta liteke haizeak mugitzen badu datu okerrak ematea. Zure estazioaren muntaiaren argazkiak eskatzen dituzte, estazioaren modeloa eta ongi jarrita egotea fidagarria dela ondorioztatzeko. Estazioa teiltatuaren puntan dago.

4. Zer maiztasunez eguneratzen ditu eguraldiaren datuak?

Datuak estazioak hartzen ditu. Euria, presioa, hezetasuna, temperatura eta haizearen norabidea neurtzen ditu. Estazioa konpaktua da, hau da, sentsoreak elkarren ondoan daude. Euria neurtzeko plubimetroa erabiltzen du eta automatikoa da. Estazioak 5 minutuan behin bidaltzen ditu datuak kontsolara. Ondoren meteoclimatic-era 15 minutuan behin bidaltzen ditu. Esan daiteke orrialdean ikusten diren datuak duela 15 minutuak direla, gehienez.

5. Datuak automatikoki hartzen dira orduan.

Bai, kontsolak datuak routerre- ra bidaltzen ditu eta zuzenean Interneten sartzen dira. Noizean behin arazoak egon daitezke argia joaten delako edo datuak bidaltzen dituen gailua hondatzen delako. Orduan beste aukera bat dago, ez dela hain automatikoa eta ordenagailua piztuta izan behar duzu. Larrialdi egoeretan hori egin daiteke. Noizbait gertatu izan da daturen bat oker dagoela. Programa berak esaten dizu hutsegite bat izan dela eta orduan datu horiek zuzendu behar ditut.

6. Fidagarriak dira datuak?

Nik uste nahiko fidagarriak direla. Nafarroako Gobernuak Etxarri Aranatzen eta Altsasun ditu estazioak eta datuak antzekoak izan ohi dira.

7. Estazio erdi-profesionala da, ez?

Bai, badaude gama altuko beste estazio batzuk, adibidez, Nafarroako Gobernuarenak, maila handiagokoak. Baina hau fidaga-

ria da eta prezioa arrazoizkoa.

8. Zer nolako mantenua behar du?

Estazioak pilekin funtzionatzen du. Bi urtetik behin aldatzen dira, gutxi gorabehera. Estazioa noizean behingarbitu behar da, armiar-mak ez egotea, eguzki plaka garbitzea... Garbitzea, besterik ez.

9. Zer eguraldi egingo duen esan dezakezu?

Zer eguraldia egingo duen jakiteko hainbat web guneetan begiratzen dut, esaterako, Amerikako Estatu Batuetako NOAA edo meteoprotugal. Orrialde hauek logaritmoen bidez aurreikuspena egin dezakete. Baina meteoclimatic-ek datuak eta izan direnak begiratzekoa da. Agian estazio honek aurreikuspenak egiteko aukera du, baina nik ez dut horretarako erabiltzen.

10. Jarraitzaileak dituzu?

Behin Iruñeko pertsona batek korreo bat bidalitzan esanez hona lanera etorri aurretik zer eguraldia egiten duen begiratu duela meteoclimatic-en. Meteoclimatic-en Nafarroako hiru estazio daude sartuta: hemen Bakaikun, Aurizberrin eta Paternainen. Adierazgarria da TVEko La1-ko eguraldian Bakaikun agertu izan dela noizbait. Meteoclimatic-etik hartzen dituzte datuak eta behin Bakaikun nire estazioko datuak eman zituzten.

11. Honekin dirua irabazten duzu?

Ez. Hurrengo urratsa izango zen web gune propioa egitea. Estazioa daukat, Internetera konektatuta dago... Orduan web gune horretan publizitatea sartu dezakezu. Baina momentuz ez dut egiteko intentzioa.

Plotterren diseinua eta inprimatzea

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net